



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko ekainaren 24a

86. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektua. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da bultzatzen dezan Red Eléctrica Españolaren 2021etik 2026ra bitarteko Plana lehenbailehen onets dadin. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (27. or.).

—Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da bere erantzukizunaren aitortza publikoa egin dezan Iruñeko herritarren aitzinean oro har eta 1978ko Sanferminetan iruindarrek pairatu zuten polizia-jokabidearen biktima guztien aitzinean bereziki. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (28. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Departamentuaren eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren arteko lankidetzaren sinergiko bat ezar dezan, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen garapenari bultzatzen nabarmena emateko, azpimarra arrisku psikosozialetan jarrita. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztu du (29. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Torturaren Biktimei Babesa emateko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (30. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu LGTBI+ Harrotasunaren Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (31. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak pertsona guztien giza eskubideak bermatzearen aldeko konpromisoa eta pertsona errefuxiatuekiko elkartasuna agertzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (31. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, AgoraLan guneari buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (32. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoreen bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko (33. or.).

**H SAILA:**

**Bestelako testu arau-emaileak:**

—6/2021 Foru Lege-dekretua, ekainaren 21ekoa, guztiz edo hein batean indargabetzen dituen koronabirusak (COVID-19) eragindako osasun krisiari aurre egiteko ohiz kanpoko neurri batzuk hartu zituzten zenbait foru lege-dekretu (51. or.).

—5/2021 Foru Lege-dekretua, ekainaren 2koa, zerga arloko zenbait neurri onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Osoko Bilkurak baliozkotu du (53. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektua.**

### *LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena. Proiektu hori 2021eko urtarrilaren 15eko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **IRIZPENA**

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak 2021eko ekainaren 15ean eta 23an egindako bileran onetsia.

### **Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektua**

#### ZIOEN AZALPENA

1

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berriak, zeina martxoaren 1eko 1/1973 Legearen bidez onetsi baitzen, 44., 45., 46. eta 47. legeetan arautu zituen fundazioak, baliaturik Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 48. artikuluan Nafarroari foru zuzenbide zibilaren arloan berariaz aitortzen zaion eskumen historiko eta eskusiboaz. Halaber, lege organiko horrek berak 44.20 artikuluan xedatzen duenez, Nafarroak eskumen eskusibo du Nafarroako Foru Zuzenbideko arauetara jarraikiz eratutako fundazioei dagokienez.

Horrez gain, lege organiko horren 45. artikuluan ezartzen denez, Nafarroak, bere foru araubidearen kariaz, "... bere zerga-araubideari eusteko eta hura ezarri eta arautzeko ahalmena du, kasuko hitzarmen ekonomikoan xedatzen dena deuseztatzen ukatu gabe. Hitzarmen horrek errespetatu behar du 1969ko Hitzarmen Ekonomikoaren Atariko Tituluaren barnean dauden printzipioak eta lege organiko honen 1. artikulua aipatzen duen elkartasun printzipioa".

Eskumen horiek garatzeko onetsi zen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duena. Haren xedea da Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren 44. legearen babesean eraturiko fundazioei aplikatu beharreko tributu araubidea ezarri eta erregulatzeko.

Foru lege horrek xedatu zuen bertan arautzen diren zerga onurez baliatu ahal izateko baldintza zela bere aplikazio esparruko fundazioak erregistratu beharra, eta horretarako onetsi zen azaroaren 11ko 613/1996 Foru Dekretua, Nafarroako Fundazioen Erregistroaren Egitura eta Funzionamendua arautzen dituena.

Halere, apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legea onetsi ondoren, hau da, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa (Foru Berria) aldatu eta eguneratzen duen araua, aldaketa funtsezkoa gertatu da fundazioen araubide juridikoan, zehazki foru legeak 2019ko urriaren 16an indarra hartu zuenetik.

Foru Berria aldatzen duen arauaren zioen azalpenean jasota dagoenez, fundazioek araubide berria izanen dute, Konstituzioaren 34. artikuluan ezarritakora guztiz egokitzeko asmoarekin. Orobat, zioen azalpen horretan halaber adierazten den bezala, Foru Berria zuzenbide pribatuaren konpilazio bat denez, eta interes orokorreko fundazioek zuzenbide publikoaren arlokoa den alderdi garrantzitsu bat dutenez, egokiagoa da horiek lege berezi batean arautzea. Horrela, argi uzten da fundazio izan daitezkeela interes orokorreko

helburuei atxikiriko ondareak soilik, Konstituzioan xedatzen den bezala; eta, beren nortasun juridikoa eskuratzeko, galdakizun modura ezartzen da, etorkizuneko lege berezian arautuko diren baldintzak betetzeaz gain, ezinbestez publikotasuna eman behar zaiela Fundazioen Erregistroan inskribatuz.

Zioen azalpenean adierazitako ildotik, Foru Legeak lege bakarra mantentzen du Foru Berria fundazioentzat, 42. lege berria hain zuzen, zeinak xedatzen baitu “interes orokorreko xedeetarako diren fundazioak haiei buruzko lege berezian xedatutakoari jarraikiz eratu beharko dira, eta nortasun juridikoa lortuko dute eraketa-egintza kasuko Fundazioen Erregistroan inskribatzen denetik. Bestalde, azken xedapenetako bigarrenean, ezartzen du botere exekutiboak eta legegileak legegintzako ekimenaz baliatu beharko dutela lege berezi bat onesteko, fundazioen araubidea Konpilazioaren testu berrira egokituko duena.

## 2

Konpilazioaren aldaketa egin arte, 44. legetik 47. legera bitartekoek jasotzen zuten fundazioen araubidea. Lege horietan zeuden araututa fundazioen eraketa, fundazioa fundatzailearen borondatearen menpe egotea, patronatuaren ahalmenak, fundatzaileak ahalmena izatea fundazioa eskuhartze administratibo orotatik salbuesteko, ondatsunen itzulketa eta fundazioen azkentzea.

Nafarroako fundazioen araubidea zuzenbide substantibo batek osatzen zuen, zeina, balio handikoa izanik ere, oso espezifiko zen eta edukiz oso urria, halako moldez non ez baitzien erantzuten entitate horiek gaur egungo errealitatean dituzten behar, aurreikuspen eta garapenari.

Araubide horren osagarria zen lehen aipatutako uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duena. Hori dela eta, foru lege honek jasotzen du, Foru Berriaren arabera eratutako fundazioetan aplikatzekoak diren tributu arloko xedapenak ez ezik, haietzako egiazko araubide substantibo bat ere. Nolanahi ere, araua aplikatzen zitzairen fundazioei baldin eta erregulatzen zituen zerga onurak bereganatu nahi bazituzten.

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarren Konpilazioa (Foru Berria) aldatu eta eguneratzen duen apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legeak egindako aldaketaren ondotik, beharrezkoa da foru lege berezi bat onestea, dagoen araudia Forura egokituko duena eta Foruaren 42. legearen babesean eratutako fundazio guztiei aplikatu beharreko araudi substantiboa bilduko duena, fundazioen

horiek tributu araubide bereziaren aplikazioa eskatu nahiz ez. Erregulazio berri honetarako, beharrezkoa da indargabetzea uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean jasotako tributu arlokoak ez diren xedapenak, eta indarrean jarraituko du, berriz, tributu araubideari berez dagokion zatian.

Azaldutakoagatik, foru lege berriak osotasunez heldu dio fundazioen erregulazio substantiboari, egitura honekin: 68 artikulua ditu, hiru titulutan banatuta, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

## 3

I. tituluak, “Kontzeptua, sorrera eta bilakaera juridikoa” izenekoak, hiru kapitulu ditu.

I. kapitulu fundazioei buruzko xedapen orokorrak biltzen dira. Esparru horretan, uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeak egiten duen bezala, xedatzen du araua aplikatzen zaiela Foru Berriaren arabera eratutako fundazioei, baina kontuan hartu gabe tributu araubide bereziaren aplikazioa eskatzen duten edo ez, uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ez bezala.

Berritasun nagusia, Foru Berriaren erreforman ezarritakoa, fundazioek nortasun juridikoa eskuratzeko modua da, hemendik aurrera beharrezkoa izanen baita eraketa egintza Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzea. Alegia, ez da aski izanen eskritura publikoan eratzeko, erreformaren aurretik hala eskatzen baitzen, eta, fundazioak erabateko eraginkortasun juridikoa izateko, Erregistroan inskribatu beharko da aurretik, entitate hauetarako aurreikusitako zerga onurak eskatu nahiz ez.

Helburuei dagokienez, foru legeak baldintza bat azpimarratzen du, hots, fundazioak interes orokorreko helburuetarako eratu behar direla nahi-taez, eta helburu horien zerrenda zabal eta zehatzagoa ezartzen du, horien artean sartuz, besteak beste, emakumeen eta gizonen berdintasuna, irisgarritasun unibertsalaren sustapena eta pertsonen integrazio osoa eta berdintasuna eragozten dituzten oztopoen desagertzea, garapen teknologikoaren eta informazioaren gizartearen sustapena, enplegu bete eta lanaren arloko aukera berdintasuna, kulturaren zabalkundea eta kultur ondarearen defentsa; azken finean, horrekin erantzuna eman nahi zaie egungo nafar gizartearen behar, kezka eta gabeziak batzuei.

Nabarmendu beharreko beste berritasun bat, kontzeptuak argitu beharrak eragindakoa, bereizketa bat da: fundazioen jardueren onuradunen eta hartzaileen artekoa. “Hartzaileak” dira entitatearen jardueren xede den populazio zatia, fundazioaren

xedeak kontuan hartuz. “Onuradunak” dira, berriz, fundazioaren jardueren onura jasotzen duten pertsonak edo taldeak, inpartzialtasunaren, diskriminazio ezaren eta objektibotasunaren irizpideak betez egindako hautapen prozesua bukatu ondoren.

Fundazioen izenari dagokionez, eta lehenago ere, euskararen erabileraren gaineko arauak aplikatuz onartzen bazen ere, hemendik aurrera berariaz ezartzen da “Fundazioa” nahiz “Fundación” hitza erabiltzeko aukera.

II. kapituluaren arautzen dira fundazioaren eraketa, eraketa aktaren edukia eta estatutuena, Nafarroan indarra duen araudian jasotakoaren antzeko moduan.

Berritasun bat gehitzen da, alegia “inskribatzeko dauden fundazioen” egoeraren erregularizazioa, hau da, eskritura publikoan eratzten direnetik Erregistroan egiaz inskribatu bitarteko aldianduen fundazioena; horiei buruz ezartzen da fundazioak ez inskribatzeak izan ditzakeen balizko ondorioak bere gain hartuko dituela inskribatzeko betebeharraren legezko erantzukizuna duenak.

Fundazioei buruzko beste araudi batzuek ez bezala, Nafarroako foru arauak uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean araututako sistema mantentzea hautatzen du, eta ez du gutxieneko kopururik ezartzen hasierako zuzkidurarako. Horrela, hasierako zuzkidura aski eta egokia izan behar dela ezartzen da, eta fundatzaileek frogatu beharko dutela baldintza horiek betetzen direla fundazioaren lehenbiziko urterako jardun programa bat eta bideragarritasun azterketa bat aurkeztuz; bi lan horiek eraketa egintzan gauzatu beharko dira.

III. kapituluaren estatutuen aldaketa eta ondorengo azkentzea eta likidazioa arautzen dira, eta ex novo eransten da fundazioen bat-egitea eta zatiketaren gaineko erregulazioa.

#### 4

II. tituluak, “Funtzionamendua eta Araubide Ekonomikoa” izenekoak, bi kapitulu ditu.

I. kapituluaren Fundazioaren gobernua arautzen da. Patronatua da organo nagusia eta kide anitzeko organo gisa antolatzen da, bere gain hartuz Fundazioaren gobernua, administrazioa eta ordezkariak. Xehetasunez arautzen da haren osaketa, patronatuko kide izateko betebeharrak, izendatzeko modua, bateraezintasun kasuak, onartzeko eta uko egiteko modua, karguaren doakotasuna, haren eginkizunak eta, azkenik, kargualdien iraupena eta egoerak (kargu uztea, etetea, ordezteak, hutsik dauden karguak).

Aurrenekoz ezartzen dira zer ondorio dituen eta zer egin patronatuak behar adinako kide ez dituenean, estatutuetan edo foru lege honetan ezartzen den gutxieneko kopurua alegia.

Fundazioei buruzko beste arau batzuetan ez bezala, foru lege honetan ere mantentzen dira patronatuko kide karguaren doakotasuna eta bateraezintasuna fundazioari edozein motatako zerbitzuak ordainduta ematearekin. Uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ere hala zegoen jasota.

Patronatuaren ahalmenen zerrenda zehatza ematen da, patronatua fundazioaren organo nagusia delakoan eta, horrenbestez, ahalmen garrantzitsuenak bere baitan biltzen dituelakoan, funtsezko erabakiak eta akordioak hartuz betetzen dituenak fundazioaren helburuak lortze aldera. Halere, ez da “numerus clausus” bat, zeren fundazioek, pertsona juridiko pribatuak diren aldetik, bestelako ahalmenak ere ezartzen ahalko baitituzte, autoantolaketarako duten ahalaz baliatuz, eta ahaztu gabe inola ere patronatua fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkariak organo dela.

Nolanahi ere, foru legeak fundazioen beharrak ere aintzat hartzen ditu, gizarte moderno eta dinamiko batean bestelako organoak eta autoantolaketarako bideak behar dituztelako, fundazioaren lana eraginkorra izanen bada; horrenbestez, legeak jasotzen du estatutuetan beste organo batzuk, haien izaera eta patronatuarekin duten harremana arautzeko aukera, hura baita fundazioaren organo nagusia.

Azkenik, kapitulu honetan foru legeak egungo aurrerapen teknologikoak kontuan hartu eta beste aukera bat aurreikusten du, alegia patronatuak bilera telematikoak egin ahal izatea, kideak toki desberdinetan egonda, baldin eta baldintza batzuk betetzen direla ziurtatzen bada.

II. kapituluaren ezartzen da zein diren fundazioek jarduteko betebeharrak eta haien araubide ekonomikoa. Kapitulu hau bi ataletan antolaturik dago: lehenbizikoan arautzen da onuradunen hautaketa eta bigarrenetan araubide dokumental eta ekonomikoa.

Araubide ekonomikoari dagokionez, uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean jasotako arauak mantentzen dira, operatiboak direla frogatu delako; horren salbuespen bakarra da, halere, araubide fundazio guztiei aplikatuko zaiela, ez bakarrik tributu araubide berezia lortua zutenei.

## 5

III. tituluak, "Esku-hartze administratiboa" ize-nekoak, hiru kapitulu dauzka.

I. kapituluaren Nafarroako Fundazioen Erregistroa arautzen da. Lehenago azaldu bezala, berri-tasun nagusia da erregistro horretako inskripzioa konstitutihoa dela Foru Berriaren aldaketak indarra hartu zuenez geroztik.

Horrez gain, beste berrietasun aipagarri batzuk dira erregistroaren funtzionamendua zuzentzeko printzipioen zerrenda, teknologia berriak erabiltzen laguntzeko betebeharrak, bai prozeduren kudeaketan bai herritarrekin eta fundazioekin duen harremanean. Ondorio horietarako, foru legeak hartu duen bidea da sustatzea, batetik, Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoa txertatuko den informazio sistema bat sortzea, eta, bestetik, koordinazio, lankidetzak eta elkarlan harremanak ezartzea fundazioen beste erregistro batzuekin eta notariotzekin eta notarioen elkargoekin, zein bere eginkizunak betetzean efizienteagoak eta eragin-korragoak izateko.

Bukatzeko, kapituluak arautzen ditu erregistroaren eginkizunak, inskribatu beharreko egintzak eta erregistroaren publikitatea, baina gai horiek zehatzago garatu beharko dira aurrerago errege-lamendu bidez.

II. kapituluaren biltzen dira babesletzari buruzko xedapenak; izan ere, aurreneko ezartzen da babesletza nahitaezko izaeraz fundazio guztientzat, dagoeneko erregistraturik daudenak barne. Kontuan hartuz horrek fundazioen esparruan jauzi kualitatiboa dakarrela Foru Komunitateari dagokio-nez, foru legea aldentzen da fundazioei buruzko beste arau batzuetatik eta diseinatzen duen babesletzak, erakunde horren funtsezko oinarri guztiak biltzen baditu ere, ez du gehiegizko esku-hartzerik fundazioan, haren eginkizuna mugatzen baita gai batzuetara, zeinak funtsezkoak baitira hain zuzen ere fundazioek beren lana bete dezaten fundazioen zuzenbidearen muina errespetatuz eta fundaziorako eskubidearen erabilera egokia dela bermatuz, bai eta fundatzaileen borondatea eta fundazioaren helburuak egiaz betetzen direla ere.

Babesletzak eginkizun horiek bete ditzan, foru legeak patronatuek hartutako akordio eta erabakiak komunikatzeko sistema bat ezartzen du, haien garrantziaren arabera; aurreikusten du, halaber, muturreko egoera batean, fundazioan aldi baterako esku hartzeko aukera, agintaritzak judizialari eskaera egin ondoren, kudeaketa ekonomikoaren irregulartasun larri batek arriskuan jartzen badu fundazioaren biziraupena bera, edo funda-

zioaren helburuen eta egindako jardueraren artean desbideratze larria gertatzen bada, betiere patronatuak ez-entzunarena egin ondoren babesletzak egindako errekerimenduari irregular-tasunak zuzen ditzala eskatuz. Horrekin batera, foru legeak aurreikusten du fundazioak, beren borondatez, onar dezaketela babesletzaren esku-hartze handiagoa, beren estatutuetan jasotzen ahal dutelako organo horren baimena beharko dela jarduketa zehatz batzuk betetzeko.

Azkenik, foru legeak arautzen du aholkularitza lana, babesletzari dagokiona, eta haren egintzen eta erabakien aurkako errekursoak.

III. kapituluak Foru Administrazio Publikoaren fundazio publikoei buruzkoa da eta dio hori honakoek arautzen dutela: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legea; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, aurrekontu, ekonomia eta finantza araubideari dagokionez; eta 44.3 artikuluko e) letra, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean.

## 6

Amaiera aldeko xedapenei dagokionez, foru legeak bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azkeneko bi xedapen ditu.

Lehen xedapen iragankorrean aurreikusten da babesletza ofizios esleituko zaiela egun Erregistroan inskribatuta dauden eta Foru Berriaren aurreko arau jarraituz, babesletzaren menpe ez jartzea erabaki zuten fundazioei hain zuzen.

Bigarrenean, Erregistroan inskribatuta dauden fundazioentzako araubide iragankorra jasotzen da, haien estatutuak egokitu beharko baitituzte arau berrietara, bi urteko epean foru legeak indarra hartzen duenetik, eta hala egin ezean izanen dituzten ondorio juridikoak ere zehazten dira.

Xedapen indargabetzaile bakarrak foru legean ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapenen indargabetze orokorra jasotzen du. Horrekin batera, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen I. tituluako II., III., IV. eta V. kapituluak berariaz indargabetzea jasotzen du, eta gainerako edukiak indarrean jarraituko duela; aurrerantzean ere arau horren zerga onurak aplikatuko zaizkie fundazioei. Xedatzen da, halaber, Nafarroako Fundazioen Erregistroaren Egitura eta Funtzionamendua arautzen dituen azaroaren 11ko 613/1996 Foru Dekretuaren zenbait agindu indargabetzea, foru legean

aurreikusitakoari aurka egiten diotenak hain zuzen.

Azken xedapenak erregelamenduzko garapenari eta foru lege honek indarra hartzeari buruzkoak dira.

## I. TITULUA

### Kontzeptua, sorrera eta bilakaera juridikoa

#### I. KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

###### 1. artikulua. Legearen xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren edo Nafarroako Foru Berriaren 42. legearen lehen paragrafoaren babesean interes orokorreko helburuetarako eratzen diren fundazioen araubide juridikoa ezartzea.

###### 2. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Foru lege hau aplikatuko zaie 1. artikulua arabera eratuta dauden eta beren jarduerak nagusiki Nafarroako Foru Komunitatean betetzen dituzten fundazioei, horrek galarazi gabe harreman instrumentalak ezartzea beste lurralde esparru batzuetan.

2. Ondorio horietarako, ulertzen da fundazio batek bere jarduerak nagusiki Nafarroako Foru Komunitatean betetzen dituela baldin eta, 1. artikulua arabera eratuta egonda, bere jardura nagusiki atzerrian bete eta patronatuaren egoitza Nafarroan badu.

3. Foru lege hau aplikatuko zaie halaber Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatutako atzerriko fundazioetako ordezkartzei, baldin eta beren jarduerak nagusiki Nafarroan betetzen badituzte.

###### 3. artikulua. Kontzeptua eta araubide juridikoa.

1. Fundazioak irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak dira, beren ondarea interes orokorreko xedeak betetzeari modu iraunkorrean atxikia dutenak.

2. Fundazioak honakoek arautzen dituzte: fundatzaileen borondateak, haien estatutuek eta, kasu guztietan, Nafarroako Foru Berriak eta foru lege honek, bai eta fundazioen arloan indarra duten gainerako arauak ere.

###### 4. artikulua. Helburuak.

1. Fundazioek interes orokorreko helburu hauetako bat edo batzuk izan behar dituzte:

a) Giza eskubideak, bortxazko egintzen biktimak eta bestelako hondamendienak defendatzea.

b) Printzipio demokratikoak eta zibikoak defendatzea.

c) Hezkuntza, zientzia eta ikerketaren arlokoak.

d) Osasun eta kirol arlokoak eta bizi ohitura osasuntsuak sustatzekoak.

e) Kulturaren sustapena eta zabalkundea; kultur ondarearen defentsa, bai eta hizkuntz-aberastasuna eta -dibertsitatea sustatzea ere.

f) Ingurumena eta garapenerako eredu jasangarria defendatzea.

g) Ekonomia eta ekintza soziala sustatzea.

h) Garapenerako lankidetzeta eta boluntarioritza soziala sustatzea.

i) Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna, zeharkakotasunez, hau da, fundazioek dituzten interes orokorreko helburu guztietan eraginez.

j) Irisgarritasun unibertsala sustatzea eta pertsonen integrazio eta berdintasunerako traba diren oztopoak kentzea, zeharkakotasunez, hau da, fundazioek dituzten interes orokorreko helburu guztietan eraginez.

k) Garapen teknologikoa eta informazioaren gizartea.

l) Enplegua denentzat eta aukera berdintasuna sustatzea lan arloan.

m) Interes orokorreko antzeko beste helburu batzuk.

2. Ezin izanen da fundaziorik sortu, prestazioak edo jarduerak honakoei zuzentzeko helburu nagusiarekin: fundatzaileei, patronatuko kideei, haien ezkontideei edo antzeko afektibitate harreman baten bidez haiekin lotutako pertsonen, haien odol edo ezkontza bidezko laugarren gradurainoko ahaideei (gradu hori barne), eta interes orokorreko helbururik ez duten pertsona juridikoei.

3. Aurreko apartatuan xedatutakoa ez zaie aplikatuko helburu bakarra edo nagusia Espainiako ondare historikoaren parte diren ondasunak zaindu edo zaharberritzea duten fundazioei, baldin eta betetzen badituzte haien gaineko araudian aurreikusitako beharkizunak, bereziki ondasun horiekiko dituzten betebeharrak, bisitak baimendu eta jendaurrean ikusgai jartzekoak alegia. Ez zaie aplikatuko, orobat, balio erantsiaren zergatik salbuetsitako gizarte laguntzako edo kirol arloko jarduerak egiten dituzten entitateei.

**5. artikulua.** Hartzailleak eta onuradunak.

1. Hartzailleak dira, fundazioaren xedeak kon-tuan hartuz, entitatearen jardueren xede diren per-sonen kolektibitate orokor eta zehaztugabeak. Halakoak dira, halaber, enpresa bateko edo ba-tzuetako langileak eta haien senitartekoak.

2. Onuradunak dira hartzailleak edo hartzaille taldeak, patronatuak inpartzialtasunez, diskrimina-zio ezaz eta objektibotasunez hautatzen dituenak fundazioaren jarduera eta onura zehatzak jaso di-tzaten.

3. Fundazioen jardueren onuradun izan daitez-ke aurreko artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren pertsonak, hartzailleen kolektibitate orokor eta zehaztugabeetako kide direnak, aurreko aparta-tuan ezarritako irizpideekin bat hautatu badira, aukeraketa horretarako prozesu edo erabakietan onuradunekin lotura duten pertsonen parte hartu gabe betiere.

**6. artikulua.** Nortasun juridikoa.

1. Nafarroako Foru Berriarekin bat, 1. artiku-luan aipatzen diren fundazioek nortasun juridikoa bereganatzen dute eraketa egintza Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzen den uanean.

2. Inskripzioa ukatzen ahalko zaie soilik egin-tza horrek araudi indarduneko aginduak betetzen ez baditu.

3. Erregistroan inskribatutako entitateek baizik ez dute “Fundación” eta/edo “Fundazioa” izena erabiltzerik izanen.

**7. artikulua.** Izena.

1. Fundazioen izenak bat etorri beharko du indarreko legeetan izenatarako aurreikusitako baldintzekin, debekuekin eta erreserbekin.

2. Fundazioen izenak ondoko arau hauek bete-ko ditu:

a) “Fundación” eta/edo “Fundazioa” hitza ager-tu beharko da, eta izenak ez du inolako nahasbi-derik ekarriko, izenen arteko antzekotasunak dire-la eta, fundazioen edozein erregistrotan lehendik inskribatuta dagoen beste ezeinekin, ez eta beste erregistro publiko batean inskribatuta dagoen beste ezein entitaterekin ere.

b) Ezin izanen da erabili legeen kontrako hitzik edo adierazpiderik, edo pertsonen oinarrizko eskubideak urra ditzakeenik.

c) Ezin izanen da eratu soilik erabiliz Espainia izena, edo autonomia erkidegoen izenak edo toki entitateenak, eta ezin izanen dira baliatu erakunde ofizial edo publikoen izenak ere, Espainiakoak

nahiz nazioartekoak izan, non ez den entitate fundatzaileen izena bera.

d) Fundatzailea ez den pertsona fisiko baten izena edo izenordea, edo pertsona juridiko baten izena edo akronimoa erabili nahi izanez gero, hark berariaz emandako baimena beharko da, edo haren lege ordezkariak emandakoa.

e) Ezin izanen da hartu fundazioaren helburuei ez dagozkien jarduerak aipatzen dituen izenik, ez eta fundazioaren izaeraz edo jardunaz nahasbi-dea edo okerreko ideia sor dezakeenik ere.

f) Ez dira onartuko entitate publikoek edo pri-batuek beren lege berariazkoen bidez babestuta edo erreserbatuta ditzuten izenak.

**8. artikulua.** Helbidea.

Nafarroako Foru Komunitatean izan beharko dute helbidea Foru lege honen arabera eratuta egonda eta beren patronatuaren egoitza Nafarro-an edukita beren jarduera nagusia Nafarroan betetzen duten fundazioek, bai eta, beren jarduera nagusiki atzerrian beterik, beren patronatuaren egoitza Nafarroan dutenek ere.

**9. artikulua.** Atzerriko fundazioen ordezkari-tzak.

1. Jarduerak nagusiki eta modu egonkorrean Nafarroako Foru Komunitatean bete nahi ditzuten atzerriko fundazioek, beren lege pertsonalak arau-tutakoek, ordezkari bat izan beharko dute Nafa-rrako Foru Komunitatean, eta hori izanen da haien helbidea foru lege honen ondorioetarako; halaber, Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dute.

2. Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari-tza inskribatu nahi duten atzerriko fundazioek frogatu beharko dute baliozkotasunez eratu direla beren lege pertsonalaren arabera, eta ordezkari-tza horren eraketa formalizatu beharko dute eskritura publikoaren bidez, zeinak jasoko baitu Nafarroara-ko ordezkari iraunkor baten izendapena.

Inskripzioa ukatzen ahalko da aurreko paragra-foan aipatzen dena frogatu ezean, bai eta funda-zioaren helburuak ez badira interes orokorrekoak foru lege honen 4. artikuluari jarraikiz.

3. Atzerriko fundazioek Nafarroako Foru Komu-nitatean ditzuten ordezkari-tzak gaia dela-eta dagokien departamentuko babesletzaren menpe geldituko dira, eta foru lege honetan aurreikusten den araubide juridikoa aplikatuko zaie.



## II. KAPITULUA

### Eraketa

#### 10. artikulua. Fundazioak eratzeko ahalmena.

1. Pertsona fisikoek eta pertsona juridiko publiko edo pribatuek eratzten ahal dituzte fundazioak.

2. Pertsona fisikoek ahalmena izan beharko dute zuzkidura osatzen duten ondasunak eta eskubideak doako izaeraz, “inter vivos” edo “mortis causa” baliatzeko.

3. Pertsona juridiko pribatuek organo eskudunaren berriazko erabakia beharko dute beren ondasunak doako izaeraz baliatzeko, aplikatzeko zaien legeriarekin edo beren arauekin bat.

4. Pertsona juridiko publikoek ahalmena izanen dute fundazioak eratzeko edo haien eraketan parte hartzeko, beren araudiarekin bat.

#### 11. artikulua. Eraketa motak.

1. Fundazioa “inter vivos” edo “mortis causa” egintzen bidez eratzten ahalko da.

2. Fundazioaren “inter vivos” egintzen bidezko eraketa eskritura publikoan eginen da.

3. Fundazioaren “mortis causa” egintzaren bidezko eraketa testamentuz, oinordetza itunez edo oinordetza emateko beste edozein moduz eginen da, Nafarroako Foru Berriarekin bat etorrita. Egintza horretan bildu beharko dira eraketaren eskritura publikoari dagokionez arau honetan aurreikusten diren zehaztasun guztiak, salbu eta hurrengo apartatuan xedatutako kasuan.

4. Fundazioa “mortis causa” egintzaren bidez eratzeko, xedatzaileak fundazio bat sortzeko eta hasierako zuzkidurako ondasun eta eskubideak baliatzeko borondatea adierazi baizik ez badu egin, foru lege honetan eskatzen diren gainerako baldintzak jasotzen dituen eskritura publikoa eman beharko dute, hain zuzen ere, “mortis causa” izaerako liberalitateak egikaritu behar dituztenek, zuzenbideari jarraikiz hala dagokielako.

#### 12. artikulua. Eraketaren eskritura publikoa.

Fundazio baten eraketaren eskrituran guxtienez ere alderdi hauek jaso beharko dira:

a) Fundatzaile guztien izen-deiturak, adina eta egoera zibila, pertsona fisikoak badira, eta, pertsona juridikoak izatera, sozietatearen izena; bi kasuetan, nazionalitatea, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Fundazio bat eratzeko borondatea.

c) Hasierako zuzkidura, haren balorazioa eta zertan den ekarpena.

d) Fundazioaren izena. Eskritura publikoan adierazten den izenak bat etorri beharko du zehatz-mehatz izenaren ziurtagiri negatiboan ageri denarekin.

e) Fundazioaren estatutuak.

f) Patronatua osatzen dutenen identifikazioa, eta haien onarpena, fundazioa eratzeko unean egiten bada.

#### 13. artikulua. Estatutuak.

1. Fundazioaren estatutuetan honako hauek jasoko dira:

a) Entitatearen izena, “Fundación” eta/edo “Fundazio” hitza tartean adierazita.

b) Fundazioaren helbidea eta jarduerak nagusiki beteko dituen lurralde-eremua.

c) Fundazioaren iraunaldia, izaera mugagabearekin eratzten ez bada.

d) Fundazioaren helburuak.

e) Helburuak betetzeko jarduera nagusiak.

f) Baliabideak fundazioaren helburuak betetzen aplikatzeko eta onuradunak zein diren zehazteko oinarritzko arauak.

g) Patronatuaren osaketa, kideak eta kargudunak izendatu eta ordeztzeko arauak, agintaldiaren iraupena, baldin eta epemuga edo epea baldin badu, kargutik kentzeko arazoak, haien eskudantziak eta eztabaidarako eta erabakiak hartzeko modua.

h) Beharrezkoa denean, fundazioaren beste organo batzuen erregulazioa eta bere gain hartu behar dituzten eginkizunak edo ahalmenak.

i) Ondarearekin zer egin, fundazioa azkenduz gero.

j) Legezko beste edozein xedapen eta baldintza, fundatzaileek ezarri gogo dutena.

2. Fundazioaren estatutuetako xedapenen bat edo fundatzaileen borondatearen adierazpenen bat foru lege honen kontrakoa izanez gero, ulertuko da ez dela ezarri. Xedapen horrek fundazioaren beraren baliozkotasunari eragiten badio, ukatuko da Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzea.

#### 14. artikulua. Inskribatzeko dauden fundazioak.

1. Fundazioa eratzeko agiria eman ondoren, Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskripzioa egin bitartean, fundazioaren patronatuak, izendatutakoek izendapena onartu ondoren, inskripzioa-

ko beharrezkoak diren egintzak beteko ditu eta, horiez gain, soilik haren ondarea zaintzeko ezinbestekoak direnak eta, fundazioak kalterik izan ez dezan, atzeratu ezin direnak; ulertzen da ezinbesteko egintza horiek fundazioak automatikoki bere gain hartuko dituela nortasun juridikoa eskuratzearekin batera.

2. Inskripzioa ez badute eskatzen edo prozeduraren ondorioz zuzenketa egiteko eskaerei erantzuten ez badiete horretara behartutako pertsonak, modu solidarioan hartuko dute bere gain dagokien erantzukizuna, fundazioa inskripzio prozesuan zegoelarik jarduketa ez betetzeagatik eta egindako egintzengatik.

**15. artikulua.** Hasierako zuzkidura eta ondorengo gehikuntzak.

1. Hasierako zuzkidura osatuko du fundatzaileek eraketaren unean fundazioaren helburuak betetzeari atxikitzen dioten ondare ondasun eta eskubideen multzoak.

2. Hasierako zuzkidura errebokaezina eta itzulezina izanen da, eta egokia eta nahikoa fundazioaren helburuak betetzeko; haren zenbatekoa eurotan adierazi beharko da eskritura publikoan, edozein motatako ondasun eta eskubideekin osatuta egon badaiteke ere. Diruz egiten ez diren ekarpenak berdin kuantifikatuko dira, eta eskriturari aditu independente baten tasazioa erantsiko zaio, erabili diren balorazio irizpideak zehaztuta.

Kasu guztietan, ekarpenak egiazkoak direla frogatu beharko da baimena ematen duen notarioaren aurrean. Diruzko ekarpenak banku ziurtagiriaren bidez frogatuko dira. Diruzkoak ez diren ekarpenak frogatuko dira erregistroko datuen bidez, baldin badaude, akzioen edo partaidetzen zenbakiak aurkeztuz, halakorik badute, edo zuzenbidean baliozkoa den edozein bitarteko erabiliz, baldin eta frogatzen badu ekarpenak egiazkoak direla haien izaeraren arabera.

3. Hasierako zuzkidura fundazioaren helburuetarako behar bezalakoa eta behar adinakoa dela justifikatze aldera, fundatzaileak edo fundatzaileek Erregistroan lehen jarduketa-programa aurkeztu beharko dute, zeinak urtebeteko epea hartuko baitu, bai eta fundazioaren bideragarritasunari buruzko azterlan ekonomikoa bat ere, zeinak barne hartuko baitu programako jarduera guztien finantzaketa osoa, xehakatu eta identifikagarria.

Aurrekoa gorabehera, hasierako zuzkidura behar bezalakotzat eta behar adinakotzat joko da presuntzioz, horren balio ekonomikoa 10.000 euro baino gehiagokoa bada. Kasu horretan, gainera,

ez da beharrezkoa izanen aurreko paragrafoan aipaturiko azterlan ekonomikoa aurkeztea.

4. Hasierako zuzkiduraren diruzko ekarpenak jarraian egin daitezke. Horrela egiten bada, hasierako ordainketa ez da izanen fundazioaren borondateak aurreikusita duen zenbateko osoaren %25 baino txikiagoa; fundazioa eratzeko eskritura publikoa ematen den egunetik hasi eta bost urteko epean ekarri beharko da gainerakoa.

5. Hirugarrenek konprometitutako ekarpenak hasierako zuzkiduratzat hartzen ahalko dira, baldin eta obligazioa exekuzioa dakarten tituluetan jasota badago.

6. Inola ere ez da hasierako zuzkiduratzat hartuko dohaintzak biltzeko asmo hutsa, kuotak edo aldizkako dirulaguntzak badira ere, edo doako izaera duen beste edozein diru-sarrera.

7. Hasierako zuzkidura, fundazioa eratzeko egokia eta nahikoa dela frogatu bada, handitzen ahalko da fundazioaren bizitzan diruzko ekarpen gehiagorekin eta ondarean zeuden erreserbak edo soberakinak eraldatzearen ondorioz, dela borondatez, dela legeak behartuta. Handitzen ahalko da, halaber, fundatzaileek edo hirugarrenek, ondare-ondasunen edo -eskubideen zuzkidura gisa, egindako ekarpenekin, edo patronatuak erabakitzen badu fundazioaren helburuei atxikipe-na egitea izaera iraunkorrarekin. Fundazioa eratu ondoko zuzkidura gehikuntzak ez dira hasierako zuzkiduratzat hartuko, ez bada aldatzen eraketa eskritura, berariaz hala ezartzen duena; horrenbestez, gehikuntza horiek ez dira errebokaezinak izanen, ez eta itzulezinak ere.

### III. KAPITULUA

#### Fundazioen aldaketa, bat-egitea, zatiketa eta azkentzea

**16. artikulua.** Fundazio-agiriaren edo estatutuen aldaketa.

1. Patronatuak fundazioaren fundazio-agiriaren edo estatutuen edukia aldatzea erabakitzen ahalko du, arrazoiturik, baldin eta fundatzaileek ez badute halakorik debekatu, fundazioaren helburua errespetatzen bada eta komenigarria bada entitatearen interesei begira eta helburuak hobeki lortzeko.

2. Patronatua behartuta dago estatutuen aldaketa erabakitzera, fundazioaren eraketa ekarri zuten inguruabarrak halako moduan aldatu direnean, non ezinezkoa baita fundazioak haien arabera behar bezala jokatzeko. Aldaketa hori ezin da erabaki fundatzaileek erabaki baldin bazuten halakotan fundazioa azkendu beharra dagoela, kasu

horretan patronatuak azkentzea erabaki beharko baitu. Bi kasuetan, patronatuak arrazoitu beharko du jarduketa hori, eta jardun ezean, horrek ekar ditzakeen erantzukizunak hartuko ditu bere gain.

3. Aldaketarako erabakia arrazoitua izan beharko da, eta eskritura publikoan jaso.

#### **17. artikulua.** Fundazioen bat-egitea.

1. Patronatuak erabaki dezake fundazioaren bat-egitea beste fundazio batekin edo batzuekin, baldin eta fundazioaren helburua errespetatzen bada eta erabaki hori ez badute fundatzaileek debekatu. Bat-egitea gauzatuko da parte hartzen duten fundazioetako patronatu guztiek erabakia hartu ondoren.

2. Fundazioen bat-egitearen arrazoa izan den fundazioen helburuak hobeki betetzea, eta bide hauetatik gauzatzen ahalko da:

a) Fundazio batek beste bat edo gehiago irentsiko du, eta irentsitako fundazioaren edo fundazioen ondareak bereganatuko ditu oinordetza unibertsalaren bidez; irentsitakoak likidaziorik gabe azkenduko dira, baina oinordetza unibertsalerako beharrezkoak diren balantzeak onartu beharko dira.

b) Fundazio berri bat sortuko da bat egindako fundazioak azkenduz, likidaziorik gabe, eta haien ondareak fundazio berriari eskualdatuko zaizkio, zeinak oinordetza unibertsalaren bidez bereganatuko baititu.

3. Bat-egitearen gaineko erabakiak arrazoitua izan beharko du, eta bat-egitean parte hartzen duten fundazioek emana, eta eskritura publikoan jaso beharko da. Erabakian jaso beharko dira, parte hartzen duten fundazioen inguruabar orokorrez gain, bat-egitearen ondorioz sortzen den fundazioaren estatutuak, lehen patronatua osatzen dutenen identifikazioa, azkendutako fundazioen bat-egitearen balantzea eta haren data, kontabilitatearen ondorioetarako. Bat-egitearen eskritura publikoari erantsiko zaio, halaber, parte hartzen duten fundazioetako patronatuek bat-egiteari buruz onetsitako erabakien egiaztagiria.

4. Fundazio berri bat bi fundazioen edo gehiagoren bat-egitearen bidez sortzeko, fundazioen eraketarako aurreikusitako tramiteak bete beharko dira.

5. Irenstearen bidezko bat-egiteetan estatutuak aldatzeko aurreikusitako tramiteak bete beharko dira.

6. Erregulazio desberdinen menpeko fundazioen bat-egiteetan, Nafarroako araudia aplikatuko da sortzen den fundazio berriaren helbidea Foru

Komunitateko lurraldean ezartzen bada, bere jarduerak nagusiki esparru horretan gauzatu behar dituelako.

7. Patronatuek bete beharko dituzte erabakita-ko bat-egiteari dagokionez indarreko araudiak eta bakoitzaren estatutuek ezartzen dituzten betebeharrak.

#### **18. artikulua.** Fundazioen zatiketa.

1. Patronatuak erabakitzen ahalko du zatitzea, bere ondarearen zati bat bananduz, beste fundazio bat sortzeko, edo ondare hori lehendik dagoen beste fundazio bati eskualdatzeko, baldin eta jarduketa hori fundatzaileek debekatu ez badute eta justifikatzen bada zatiketa hori zatitutako fundazioaren helburuak hobeki bete beharrez egiten dela.

2. Zatiketaren gaineko erabakiak arrazoitua izan beharko du, eta zatiketan parte hartzen duten fundazio guztiek emana, eta eskritura publikoan jaso beharko da; erabakian jaso beharko da, parte hartzen duten fundazioen inguruabar orokorrez gain, zatiketaren ondorioz sortzen den fundazioaren eta zatituaren dokumentazioaren aldaketa, edo dokumentazio ematea, berri bat sortzen bada, eta bi fundazioen balantzea. Eskritura publikoari erantsiko zaio, halaber, parte hartzen duten fundazioetako patronatuek zatiketari buruz onetsitako erabakien egiaztagiria.

3. Fundazio berri bat beste baten ondarea zatituz sortzeko, fundazioen eraketarako aurreikusitako tramiteak bete beharko dira.

4. Fundazio baten ondarea beste baten ondarea zatituz handitzeko, estatutuak aldatzeko aurreikusitako tramiteak bete beharko dira.

5. Patronatuek bete beharko dituzte erabakita-ko zatiketari dagokionez indarreko araudiak eta bakoitzaren estatutuek ezartzen dituzten betebeharrak.

#### **19. artikulua.** Fundazioen azkentzea.

1. Estatutuetan aurreikusten ahalko da Fundazioa azkentzea patronatuak, estatutuetan bertan ezartzen den gehiengoarekin, hala erabakita; erabakian adierazi beharko da erabakia hartzeko oinarri diren inguruabarrak. Horrez gain, honelakoetan azkenduko da fundazioa:

a) Eraketan ezarritako epea bukatzeagatik.

b) Fundazioaren helburua osotara bete-zeagatik.

c) Fundazioaren helburua betetzea ezinezkoa izateagatik.

d) Fundazioaren jarduerak edo helburuak arlo zibilean edo penalean legez kanpokoak izateagatik, epai irmo bidez hala deklaratu ondoren.

e) Azkentzea dakarren bat-egite prozedura.

f) Fundazio-agirian, estatutuetan edo indarreko araudian aurreikusitako beste arrazoi batzuk.

2. Fundazioaren azkentzea patronatuak erabaki beharko du, non tartean ez dagoen arrazoi automatiko bat edo ebazpen judicial baten agindua.

3. Azkentzearen gaineko erabakiak arrazoitua izan beharko du, eta eskritura publikoan jaso beharko da; bertan jasoko da haren data kontabilitatearen ondorioetarako.

4. Patronatuak bete beharko ditu erabakitako azkentzeari dagokionez indarreko araudiak eta bere estatutuek ezartzen dituzten betebeharrak, eta ez jarduteak ekar ditzakeen erantzukizunak bere gain hartuko ditu, halakorik bada.

**20. artikulua.** Hartzeko gerakinaren likidazioa eta adjudikazioa.

1. Fundazioaren azkentzeak ekarriko du likidazio prozedura bat irekitzea, indarreko araudian xedatutakoarekin bat etorriko dena.

2. Patronatua likidazio batzorde gisa eratu daiteke, edo batzorde hori osatuko dutenak izendatu ditzake. Batzorde hori izendatu eta karguak onartu ondoren, patronatuak bere eginkizun guztiak bete-teari utziko dio.

3. Likidazio egintzei dagokienez, likidazio batzordeko kideek fundazioaren patronatuko kideen eskubide, betebeharrak eta erantzukizun berberak izanen dituzte.

4. Likidazio eragiketarako eskritura publikoan formalizatuko dira, eta bertan jasoko da onartutako likidazio balantzea ere. Egiteko dauden eragiketarako eta horiek egiteko modua ere zehaztuko dira.

**21. artikulua.** Gerakineko ondarearen erabilera.

Azkentzea erabakitzean, patronatuak erabakiko du, halaber, likidazioa egin ondoren geratzen diren ondasun eta eskubideak zertan edo nola erabili. Gerakineko ondarea erabiliko da fundatzaileek estatutuetan edo fundazio-agirian aurreikusitako moduan, baldin eta erabilera hori fundazioarenak bezalako interes orokorreko helburuak dituzten entitate publiko edo irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuen aldekoa bada.

## II. TITULUA Jardunbidea eta araubide ekonomikoa

### I. KAPITULUA Fundazioen gobernua

#### Lehenengo atala Patronatua

##### 22. artikulua. Patronatua.

1. Fundazioaren gobernua, administrazioa eta ordezkaritza Patronatuari dagozkio. Hala, patronatuak izanen eta erabiliko ditu dagozkion ahalmen eta eginkizun guztiak, indarreko araudian xedatutakoarekin eta eraketa-egintzan eta estatutuetan adierazten den fundatzaile(ar)en borondatearekin bat.

2. Patronatuari dagokio fundazioaren xedeak bete eta betearaztea eta fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administrazioa, horien errendimendua eta erabilgarritasuna osorik mantenduz, kudeaketa onaren irizpide ekonomikoa eta finantzarioen arabera.

##### 23. artikulua. Patronatuaren osaketa.

1. Patronatua hiru pertsonak osatuko dute guxtienez, eta estatutuetan finkatuko da osaketa zehatza, gehieneko eta gutxieneko kide kopurua adieraziz, adibidez. Organoen osaketan, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea sustatuko da.

2. Pertsona fisikoek pertsonalki bete beharko dute kargua. Dena den, haren izenean eta hura ordezkatzuz jarduten ahalko du patronatuko beste kide batek, aldeztu aurretik izendatutakoak. Ordezkaritza hori ekintza zehaztuz erabiltzen ahalko da, hala dagokionean, ordezkaturako kideak idatziz jasotzen dituen jarraibideak betez.

3. Karguagatik kideen tokian, haiek ordezteko dagokien pertsonak jarduten ahalko dute.

4. Lehendabiziko patronatua fundazioaren eraketa eskrituran izendatutakoa izanen da. Eskritura horretan edo estatutuetan aurreikusten ahalko da patronatuak biziarteko kideak edo karguagatik izateko aukera.

5. Biziarteko kide izanen dira agintaldiaren iraupena hil artekoak dutenak. Karguagatik kide izanen dira estatutuetan ezarritako aldeztu aurreko baldintza betetzeagatik izendatzen direnak, eta haien agintaldia baldintza hori betetzearekin lotutako kargua, lanbidea, duintasuna edo inguruabarra bete bitartekoa izanen da.

6. Estatutuetan ezarriko da patronatuko kideak izendatzeko edo berritzeko bidea, haien agintaldiaren iraupena edo epemuga, jarraian berriz hau-

tatuak izateko aukera, kargu hutsak betetzeko prozedura eta ordezipena egiteko modua, kideak kanpoan, eri edo aldi baterako ezindurik dauden kasurako.

7. Kasu guztietan, patronatuak lehendakari bat eta idazkari bat izanen ditu. Idazkaria organoko kide ez denean izan ezik, kargu horietan eta patronatuko beste batzuetan -halakorik aurreikusi bada eraketaren agirian edo estatutuetan- jardun behar dutenak patronatuko kideen artean hautatuko dira agiri horietan aurreikusitako moduan. Izendatzeko moduz ezer aurreikusirik ez badago, patronatuak aukeratuko ditu erabaki bidez. Patronatuko idazkaria patronatuko kide ez den bat izan daiteke, eta, kasu horretan, hizpidea izanen du, baina botorik ez.

8. Estatutuetan berriazko izen edo eginkizunik ez duten karguetan aritzen diren patronatuko kideak bokalak izanen dira.

#### **24. artikulua.** Patronatuko kideak.

1. Patronatuko kide izaten ahalko dira pertsona fisikoak eta juridikoak.

2. Pertsona fisikoek jarduteko gaitasun osoa izan behar dute eta, horrez gain, ez dute kargu publikoetan aritzeko desgaiturik egon behar, ez eta bateraezintasun-arrazoirik ere izan.

3. Pertsona juridikoek izendatuko dituzte beren ordeztzeko diren pertsona fisiko(a)(k), bai eta ordeztzeko hurrenkera ere, bat baino gehiago direnean, den-dena estatutuetan ezarritako moduan.

4. Patronatuko kideek betebehar hauek izanen dituzte:

a) Haien eginkizunak arduraz bete, ordezkari-tza leial batek eskatu bezala, eta jarduketak bete-ko dituzte indarreko lege xedapenetan eta fundazioaren estatutuetan ezarritakoarekin bat.

b) Fundazioari buruzko informazio konfidentzialak isilean gorde, kargua utzi ondoren ere.

5. Patronatuko kideek independentziaz erabiliko dituzte beren ahalmenak, oztopo edo mugarik gabe, eta haien ebazpen edo erabakiak hartzeko ezin izanen zaie inolako baldintzarik ezarri, estatutuetan eta indarrean dagoen araudian berriaz jasota daudenez harago.

6. Patronatuko kideak ezin izanen dira patronatuan duten tokiaz baliatu onura pertsonalak edo materialak lortzeko, eta, beren karguaren ondorioz jarduketa irregularren berri izanez gero, edozein dela ere, organo eskudunei jakinarazi beharko diete.

#### **25. artikulua.** Onartzea eta uko egitea.

1. Patronatuko kideak beren eginkizunak gauzatzen hasiko dira izendapena -eta kargua, kasua bada- berriaz onartu ondoren.

2. Agiri publiko nahiz pribatu batean gauzatu beharko da onarpena edo ukoa, notarioak legeztatutako sinadurarekin. Patronatuaren aurrean ere egiten ahalko dira onarpena nahiz ukoa, eta idazkariak emandako ziurtagiri baten bidez frogatuko dira, Fundazioen Erregistroan pertsonalki agertuz edo zuzenbidean balio duen edozein bitarteko erabiliz, horren berri modu fede-emailean ematen badu.

Apartatu berria. Patronatuko kideak izendatzeko eta kargugabetzeko erabakiak Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

#### **26. artikulua.** Patronatuko kideen erantzukizuna.

1. Patronatuko kideak erantzule solidarioak izanen dira fundazioaren aurrean, araudiaren edo estatutuen aurkako egintzen ondorioz sortzen dituzten kalte eta galeren kasuan, edota eginkizunak dagokien ardurarik gabe egindakoen ondorioz sortutakoen kasuan.

2. Patronatuko kideak inbentario-onura galtzearen erantzule izanen dira fundazioaren aurrean, Kode Zibilaren 1204. artikulua aipatzen dituen egintzengatik, bai eta Nafarroako Foru Berriaren 318. legean aipatzen den itzulketa faltaren erantzule ere.

3. Ez dute erantzukizunik izanen erabakiaren aurka bozkatu dutenek edo frogatzen dutenek, erabakia hartu eta gauzatzeko esku hartu gabe, erabakia zegoenik ez zekitela edota, haren berri izanda ere, kaltea saihesteko komeni zen guztia egin zutela edo, gutxienez, berriaz aurka egin zutela.

#### **27. artikulua.** Karguaren doakotasuna.

1. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren eginkizunak, baina eskubidea izanen dute eginkizun horietan jarduteak eragiten dituen eta behar bezala justifikatzen diren gastuak ordain dakizkien. Nolanahi ere, kontzeptu horrengatik jasotako diru-kopuruek ezin izanen dituzte gainditu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko araudian zergarik gabeko dietatzat hartu ahal izateko ezartzen diren mugak.

2. Pertsona horiek, gainera, ezin izanen dute partaidetzarik izan entitatearen emaitza ekonomikoetan, ez beraiek zuzenean ez bitarteko erakunde bitartez.

**28. artikulua.** Bateriaezintasunak.

1. Bateriaezina da patronatuko kidearen kargua eta fundazioari edonolako zerbitzu ordaindu ematea. Bateriaezintasun bera izanen du fundatzaileak eta bere ezkontideak edo antzeko afektibitate harreman baten bidez harekin lotuta dagoenak.

2. Kargua bateriaezina izanen da beste kargu eta lanpostu batzuekin ere, hala ezarrita baldin badago foru lege honetan edo indarreko beste arau batzuetan.

**29. artikulua.** Karguaren iraupena.

Patronatuko kide izateko denbora mugagabea edo aldi batekoa izan daiteke, baita patronatuko karguduna izatekoa ere. Kargudunen kasuan, mugarik gabe aukeratzen ahalko dira, fundazioaren estatutuetan kontrakorik aurreikusita ez bada.

**30. artikulua.** Kargu-uztea eta etetea.

1. Fundazioko patronatuko kideek kargua utziko dute kasu hauetan:

a) Hiltzen denean edo hilda dagoela deklaratu denean; baita pertsona juridikoa azkentzen denean ere.

b) Ezintasuna, desgaitasuna edo bateriaezintasuna dagoenean, indarreko araudian ezarritakoaren arabera.

c) Izendatzeko arrazoia izan zen kargua uzten duenean.

d) Kargua behar den arduraz ez betetzeagatik, hala deklaratu badu patronatuak berak, entzunaldia eman ondoren eta estatutuetan aurreikusitako moduan, edo ebazpen judizial bidez.

e) Ebazpen judizial bidez. Hartan erantzukizun ekintza jaso beharko da indarreko araudian aurreikusitako moduan.

f) Agintaldia amaitzen denean, izendapena aldi zehatz baterako izan bazen.

g) Uko egiten zaionean. Onarpenerako aurreikusitako tramiteen bidez gauzatuko da.

h) Estatutuetan kargu-uztea baliozkoa izateko ezarritako arrazoiengatik.

2. Patronatuko kide izaeraren etetea kautelaz erabaki dezakete organo judizialek, kideen kontra erantzukizun ekintza aurkezten denean.

**31. artikulua.** Patronatuan hutsik dauden kide postuak betetzea eta ordeztzea.

1. Patronatuan hutsik dauden kideen postuak betetzeko, eta kideak eri edo aldi baterako kanpo-

an daudenean ordeztzeko, estatutuetan aurreikusitakoa beteko da.

2. Patronatuko kideen kopurua noizbait ere hiru baino txikiagoa bada, patronatuak berehala izendatu beharko ditu gutxieneko kopuru hori izateko beharrezkoak diren kideak, eta sei hilabeteko epea izanen du horretarako. Epe horretan gutxieneko kide kopurua izatea lortu ezean, patronatuko kideek fundazioaren azkentzea sustatu beharko dute berehala, edo patronatuko osaketaren aldaketa, gutxieneko kopuru hori errespetatzen bada.

3. 16.1 artikuluan xedatutakoa ukatu gabe, patronatuko kideen kopurua noizbait ere estatutuetan ezarritako gutxienekoa baino txikiagoa bada, patronatuak berehala izendatu beharko ditu estatutuetako gutxieneko kopuru hori izateko beharrezkoak diren kideak, eta sei hilabeteko epea izanen du horretarako. Epe horretan gutxieneko kide kopurua izatea lortu ezean, patronatuko kideek fundazioaren azkentzea sustatu beharko dute berehala, edo estatutuen aldaketa, patronatuaren osaketa berria ezartzeko, karguak bete daitezten dagoen kide kopuruarekin bat, betiere hiru kideren gutxieneko kopurua errespetatuz.

4. Fundatzaileek edo, halakorik ezean, patronatuak arautuko dute nola egin patronatuko kideak izendatzeko, fundazioaren bizitzako une batean hura osatzen duten kide guztiak falta badira.

**32. artikulua.** Lehendakariaren eginkizunak.

Eginkizun hauek izanen ditu:

a) Fundazioaren ordezkaritza legala, judiziala edo estrajudiziala izatea.

b) Patronatuaren bileretarako deia egin, gaitzerrenda finkatu, eztabaidak moderatu eta bilerei bukaera ematea.

c) Patronatuaren erabakiak betetzen direla zaintzea.

d) Estatutuak eta indarreko araudia betetzen direla zaintzea.

e) Araudian edo estatutuetan esleitua duen beste edozein ahalmen, eta berariaz eskuordetzen zaizkionak.

**33. artikulua.** Idazkariaren eginkizunak.

Eginkizun hauek izanen ditu:

a) Patronatuaren bileretarako deia egitea, lehendakariak hala aginduta, eta organoko kideentzako zitazioak egitea.

b) Bileretara joatea eta haien aktak egitea, akta horietan honakoak jasorik: bilerako partaideen izenak (bertaratu direnak zein ordezkaturak daudenak), bileraren gai-zerrenda, noiz eta non egin den, eztabaiden puntu nagusiak –patronatu-kideek hala eskatzen badute–, eta hartutako erabakien edukia.

c) Fundazioaren dokumentazio guztia zaintzea.

d) Ziurtagiriak ematea lehendakariak edo haren ordezkurak ontzat emanik, eta behar diren txostenak egitea.

e) Diruzaintzako eginkizunak bere gain hartzea patronatuan diruzain kargurik ez badago.

f) Araudian edo estatutuetan esleitua duen beste edozein ahalmen, eta berariaz eskuordetzen zaizkionak, patronatuko kidea baldin bada.

**34. artikulua.** Lehendakariordearen eginkizunak.

Estatutuetan aurreikusten ahalko da patronatuak kargu hau izatea eta haren eginkizunak zein diren, baina, edozein kasutan, lehendakariorde kargua betetzen duen patronatuko kideak beteko ditu-izendaturakoak bat baino gehiago badira, izendapenaren hurrenkeran- lehendakaria ordezteko eginkizunak, kargu hori hutsikbadago edo hura kanpoan edo eri dagoenean, edo bateraezintasuna duenean.

**35. artikulua.** Diruzainaren eginkizunak.

Estatutuetan aurreikusten ahalko da patronatuak kargu hau izatea eta haren eginkizunak zein diren, baina, kasu guztietan, diruzain kargua betetzen duen patronatuko kideak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Fundazioaren funtsak zaintzea eta kontabilitateaz arduratzea.

b) Lehendakariarekin batera, funtsen erabilera baimentzea.

c) Inbentarioa, egoeraren balantzea, emaitzen kontua eta memoria ekonomikoa prestatzea.

d) Araudian edo estatutuetan esleitua duen beste edozein ahalmen, eta berariaz eskuordetzen zaizkionak.

### **Bigarren atala**

#### **Patronatuaren ahalmenak eta jardunbidea**

**36. artikulua.** Patronatuaren ahalmenak.

1. Patronatuaren ahalmenen esparrukoak dira fundazioaren gobernuari, ordezkariari eta administrazioari dagozkien afera guztiak, eta, horrekin batera, estatutuen interpretazioari eta aldaketari

dagozkienak ere, kontrakoa aurreikusita egon ezean, ahalmen horietakoren bat fundatzailearentzat gorde delako; horrek ez du ukatzen 31. artikuluan xedaturakoa.

2. Patronatuak eskudantzia eta ahalmen hauek izanen ditu:

a) Fundazioaren zereginaren goi zuzendaritza, ikuskapena, zainketa eta orientazioa.

b) Estatutuen aldaketa erabakitzea horietan aurreikusitako moduan, eta estatutuak interpreta-  
tzea.

c) Fundazioaren bat-egitea erabakitzea estatutuetan aurreikusitako moduan.

d) Fundazioaren azkentzea erabakitzea, horretarako arrazoiren bat dagoenean.

e) Fundazioaren jarduketarako lehentasunak ezartzea eta ildo orokorrak finkatzea funts erabilgarrien banaketa eta aplikazioarako, entitatearen helburuak ahal den hobekien bete beharrez.

f) Hurrengo ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua onestea.

g) Inbentarioa, egoeraren balantzea, emaitzen kontua, jarduerak eta kudeaketa ekonomikoa jasotzen dituen memoria eta aldi horretako diru-sarrera eta gastuen aurrekontuaren likidazioa onestea.

h) Objektibotasunez hautatzea fundazioaren prestazioen onuradun izanen diren pertsonak.

i) Prestazioak eta elkarlanerako bideak ezartzea fundazioaren helburuekin zerikusia duten pertsona edo erakunde publiko nahiz pribatuekin.

j) Jaraunspenak, legatuak edo dohaintzak onartzea edo arbuiatzea, fundazioarentzat kome-  
nigarria dela iritziz gero.

k) Kreditu entitateekin mailegu edo kreditu eragiketarako edo beste edozein finantza eragiketa formalizatze-  
ko erabakiak hartzea.

l) Fundazioaren ondasun eta eskubide guztiak erabili, administratu, kontserbatu, zaindu eta defendatzeko eginkizun guztiak betetzea oro har, epaiketetan zein horietatik kanpo.

m) Ordezkaritzak ireki eta ixtea erabakitzea.

n) Bere ahalmenak patronatuko kide bati edo batzuei eskuordetzea, foru lege honen 39. artikuluan ezarritako moduan.

ñ) Ahalduak izendatzea, orokorrak nahiz bereziak izan.

o) Halakorik bada, fundazioaren beste organoak, estatutuetan aurreikusitakoak, osatzeko kideak izendatzea.

p) Baimena ematea Babesletzari egiaztatzeko fundazio eskubidea behar bezala baliatzen dela eta entitatearen jardunbidea legezkoa dela, eta betetzea babesletzari komunikatu eta baimena eskatzeko betebeharrak, araudian edo estatutuetan aurreikusita daudenak.

q) Fundazioaren administrazio eta gobernurako eta ordezkartzarako bete behar dituen gainerako ahalmenak, indarreko araudiak eta estatutuek esleituta dituenak.

### **37. artikulua.** Patronatuaren bilerak.

Estatutuetan bestelakorik aurreikusi ezean, patronatuaren bilerak arau hauek zuzenduko dituzte:

1. Patronatua gutxienez urtean bitan bilduko da, eta, gainera, lehendakariak dei egiten duen guztietan, edo kideen herenak gutxienez eskatzen duenean. Kasu horretan, lehendakariari zuzenduriko deialdi-eskaeran jasoko dira jorratu beharreko gaiak.

2. Deialdietan adierazita egonen dira eguneko gai-zerrenda eta bileraren inguruabarrak; garaiz jasoko direla egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bide erabiliko da deialdiak helarazteko.

3. Ez da beharrezkoa izanen bilerara deitzea patronatuko kide guztiak bilduta aho batez erabakitzen badute patronatuaren bilera bat egitea. Idazkari lanak organoko kide ez den norbaitek betetzen baditu eta une horretan bilkuran ez bada, bilera unibertsal horren idazkari lanak eginen ditu patronatuak bilkuraren hasieran horretarako izendatzen duen kideak.

4. Aurrez aurre edo urrutitik egin ahal izanen ditu bilerak patronatuak, eta kideak toki desberdinetan egoten ahalko dira, betiere, bide elektronikoaren bidez egiaztatu daitekeenean haien nortasuna, eztabaidetan parte-hartzea, adierazpenen edukia eta noiz gertatzen diren. Horrez gain, interaktibitatea eta interkomunikazioa bermatu behar dira denbora errealean, eta ziurtatu behar da baliabide horiek saio guztian zehar eskuragarri daudela, baita boto ematea ere.

5. Patronatuaren eraketa baliozkoa izanen da, biltzearen eta erabakiak hartzearen ondorioetarako, patronatuko lehendakaria eta idazkaria bileran direnean, bertaratuta nahiz urrutitik, edo estatutuen arabera haiek ordeztzen dituztenak, eta gutxienez ere patronatuko kideen erdiak, kopuru horretan sartuta lehen aipatutako kideak.

6. Idazkariak bilkuren akta eginen du, eta lehendakariak ontzat eman. Patronatuaren bilkura horretan bertan edo hurrengoan onetsiko dira aktak.

### **38. artikulua.** Erabakiak nola hartu.

Estatutuetan bestelakorik aurreikusi ezean, patronatuaren bilerak arau hauek zuzenduko dituzte:

1. Oro har, patronatuaren eraketa baliozkoa bada, erabakiak hartuko dira bertaratutako kideen botoen gehiengo soilaz, hau da, aldeko botoen kopuruak kontrakoena gainditzen duenean. Berdinketa izanez gero, lehendakariak kalitatezko botoa izanen du.

2. Halere, botoen bi herenen aldeko botoa beharko da gai hauei buruzko erabakiak onesteko:

- a) Estatutuen aldaketa.
- b) Fundazioaren bat-egitea.
- c) Fundazioaren azkentzea.
- d) Patronatuko kideen kargu-uztea.
- e) Estatutuetan ezartzen diren erabakiak.

### **Hirugarren atala**

#### **Ahalmenak eskuordetzea eta ahalduak**

### **39. artikulua.** Eskuordetzea eta ahalduak.

1. Estatutuetan debekaturik ez badago, patronatuak bere kide bati edo batzuei eskuordetzen ahalko dizkie bere ahalmenak.

2. Gai hauek ezin dira eskuordetu, ordea: kontuen, aurrekontuaren eta jarduketaren planaren onepena, estatutuen aldaketa, fundazioaren bat-egitea, azkentzea eta likidazioa, ez eta babesletzaren baimena behar duten egintzak ere, indarreko araudiak hala eskatzen duelako edo baimen hori estatutuetan aurreikusirik dagoelako.

3. Patronatuak ahal orokorrak eta bereziak eman eta errebokatzen ahalko ditu, estatutuetan kontrakorik xedatu ezean.

4. Ahalen eta eskuordetzeen erabilera, betiere, patronatuak berezkoak dituen eskumenen errespetuaren menpe egonen da, patronatua baita fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkartzako organo gorena; halaber, fundazioaren estatutuetan erabilera horri dagokionez ezarritakoa bete beharko da.

### **Laugarren atala**

#### **Fundazioaren beste organo batzuk**

### **40. artikulua.** Organo delegatuak.

1. Patronatuak batzordeak eta beste edozein motatako organo delegatuak sortzen ahalko ditu, patronatuko kideek osatuak, baldin eta estatutuetan aurreikusita baldin badago.



2. Estatutuetan ezarriko dira organo horien osaketa, eskudantziak eta jarduteko arauak.

3. Patronatuarekin duten harremana bat etorriko da aurreko artikuluan eginkizunen eskuordetzea zuzentzen duten araeekin.

**41. artikulua.** Zuzendaritza, laguntza eta lankidetzako organoak.

1. Patronatuak, bere eginkizunak betetzeko, beste organo batzuk, kide bakarrekoak nahiz kide anitzekoak, izaten ahalko ditu gerentzia eginkizunak betetzeko edo kudeaketan laguntzeko, estatutuetan aurreikusita baldin bada.

2. Estatutuetan ezarriko dira organo horien osaketa, eskudantziak eta jarduteko arauak, bai eta patronatuarekin duten harremana ere. Organoen osaketan, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea sustatuko da.

3. Organo horien helburua da patronatuak edo, halakorik bada, organo delegatuek hartutako erabakiak gauzatea, eta beti jardunen dute patronatuaren jarraibideen menpe eta fundazioaren estatutuetan horretarako ezarritakoari loturik.

4. Patronatuko kideak ezin dira organo horietako kide izan, salbu eta lan horiek ordainsaririk jaso gabe betetzen badituzte.

**42. artikulua.** Kontsulta organoak.

1. Fundazioak aholkularitza organoak izaten ahalko ditu fundazioarentzat kontsulta eta laguntza zereginak betetzeko.

2. Organo horiek kide bakarrekoak nahiz kide anitzekoak izan daitezke, baita teknikoak edo parte-hartzeak ere. Nolanahi ere, estatutuetan ezarriko da nola sortu organo horiek, haien osaketa, eskudantziak, jardunbiderako arauak eta patronatuarekin izan beharreko harremana.

3. Organo horiek ez dute inola ere eginkizun exekutiborik izanen, eta haien ezagutza eta esperientzia eskainiko dizkiote patronatuari bere erabakiak hartzeko; haien ekarpenak ez dira inoiz ere lotesleak izanen, informatiboak eta teknikoak baizik.

4. Patronatuko kideak ezin dira izan organo horietako kide, bateraezintasun arrazoitzat hartuko baita.

## II. KAPITULUA

### Fundazioen jardunerako baldintzak eta araubide ekonomikoa

#### Lehenengo atala

#### Baliabideak aplikatzeko eta onuradunak zehazteko oinarrizko arauak

**43. artikulua.** Fundazioaren baliabideen aplikazioa.

1. Fundazioaren ondasun eta errentak fundazioaren xedeak betetzeari zuzen eta berehala atxikita daudela ulertzen da.

2. Fundazioak aldian behin programatuko ditu bere helburuari dagozkion jarduerak, eta, horretarako, urtean behin prestazioen plangintza egiten da eta horiek nola egin eta adjudikatu erabakiko da.

**44. artikulua.** Onuradunak hautatzea.

1. Fundazioaren helburuak onuragarria izan behar du hartzaile talde orokorrentzat. Fundazioaren prestazioen onuradunak izan daitezke patronatuaren iritziz horiek jasotzea merezi duten pertsona fisiko eta juridiko guztiak.

2. Patronatuak hautatuko ditu onuradunak, inpartzialtasunaren eta bereizketarik ezaren irizpideei jarraikiz eta ezaugarri hauek dituzten artean:

a) Fundazioaren arreta jasotzen duen populazioaren sektorearen parte izatea.

b) Fundazioak eskaintzen ahal duen prestazioa edo zerbitzua eskatzea.

c) Haien merezimenduak, gaitasuna, premia edo onuraren arabera hautatuak izatea.

d) Bestelako baldintza batzuk betetzea, berriaz ezar daitezkeenak hain zuzen.

3. Inork ezin izanen du alegatu, ez bakarka ez taldean, onura horiek izateko eskubidea fundazioaren edo patronatuaren aurrean, haiek eman aurretik, ez eta pertsona jakin batzuei edo jende talde zehatzei esleitzeko beharra inposatu ere.

4. Inolaz ere ezin izanen dira hartzaile izan banaka izendatutako pertsonak.

5. Fundatzaileak eta horien ezkontideak edo haiekin antzeko afektibitate harreman baten bidez lotuta daudenak, edo ahaideak, laugarren gradu-rainokoak barne, ezin izanen dira fundazioaren jardueren hartzaile nagusi izan, eta ezin izanen dituzte zerbitzuak jasotzeko baldintza bereziak izan.

Aurreikuspen hori ez zaie aplikatuko foru lege honen 4.3. artikulua aipatzen dituen fundazioei.

6. Fundazioak onuradunei ematen dizkien zerbitzuak ordainpekoak izaten ahalko dira, baldin eta eskuratutako dirua fundazioen helburuetara bideratzen bada, eta justifikaziorik gabe mugatzen ez badu hartzaile izan daitezkeen esparrua.

### **Bigarren atala** **Araubide dokumentala, ekonomikoa** **eta kontabilitatekoa**

#### **45. artikulua.** Ondarea.

1. Fundazioaren ondarea orotariko ondasun, eskubide eta betebeharez osatuta egon daiteke, ekonomikoki baloratu ahal izanen direnak.

2. Fundazioaren ondarea gehitzen ahalko da jarauntsiak onartuz, zeinak beti inbentario-onurarako egindakotzat hartuko baitira.

3. Fundazioaren ondarea inbertituko da ahal den modurik egokienean fundazioaren helburuak bete eta errendimenduak edo ondare gehikuntzak lortzera bideratuta.

#### **46. artikulua.** Agiri betebeharrak.

1. Fundazioek patronatuaren eta fundazioko gainerako kide anitzeko organoen bilkuren akta liburu bat izan beharko dute.

Akta horiek estatutuetan ezarri bezala kautotuta egonen dira. Estatutuetan bestelako aipamenik ez badago, idazkariaren sinaduraz eta lehendakariak ontzat emanda tramitatuko dira.

2. Fundazioek liburu egunkari bat eta inbentarioa eta urteko kontuak jasotzeko liburu bat izan behar dituzte; horien edukia eta egitura merkataritza legerian horri buruz ezarritakoarekin bat etorriko dira.

**47. artikulua.** Errenten eta diru-sarreraren erabilera.

1. Fundazioaren xedeak betetzeko erabili beharko da, gutxienez, fundazioaren kontabilitate-emaizaren ehuneko 70, artikulua honetan adierazten diren doikuntzekin zuzenduta.

Kontabilitate-emaizaren gainerakoa, fundazioaren xedeak betetzeko erabiltzen ez dena, alegia, zuzkidura edo erreserbak handitzera bideratu beharko da, patronatuak erabakitzen duenaren arabera.

2. Honako hauek ez dira diru-sarrera gisa sartuko:

a) Fundatzaileak edo hirugarren pertsonen zuzkidura gisa emandako ondasunak eta eskubi-

deak, baita modu iraunkorrean patronatuak fundazioaren xedeari atxikitako beste batzuk ere, besterentzeagatik edo kargatzeagatik lortzen den kontraprestazioa, sortuko zen gainbalioa barne.

b) Ondasun higiezin (non entitatea bere berriazko xedeko jardueran aritzen baita) kostu bidezko eskualdaketan lortutako diru-sarrerak, betiere aipatu eskualdaketaren zenbatekoa berriro inbertitzen bada ondasun higiezinetan, zeinetan inguruabar hori gertatzen baita.

c) Fundazioa eratzen denean edo geroago zuzkidura gisa jasotako ekarpenak edo dohaintzak.

3. Ez dira honako gastu hauek kenduko:

a) Fundazioaren xedeak betetzeko gauzatzen diren jarduerekin lotura zuzena dutenak, amortizatorako eta jarduera horiei atxikiak dauden ibilgutu-hornikuntzetarako zuzkidurak barne.

b) Fundazioaren xedeak betetzeko gauzatzen diren jardueren multzoari dagozkion gastu komun zati proportzionala zehaztuko da jarduera bakoitzari baliabideak egiaz aplikatuta ondorioztatzen diren irizpide objektiboak erabiliz.

Aipatu gastu komun horietan, halakorik bada, ondoko hauek sartzen ahalko dira: kanpoko zerbitzuak, langileria, finantzak, tributuetakoak eta kudeaketa eta administrazioko bestelako gastuak, baita patronatuko kideei ordaindu behar zaizkien ere, horretarako eskubidea dutenean, indarreko araudian ezarritakoari jarraikiz.

4. Diru-sarrera eta gastu horiek zehaztuko dira fundazioak egindako kontabilitatearen arabera, indarreko araudiari jarraikiz.

5. Fundazioaren xedeetarako egintzat hartzen da ekitaldi bakoitzean egindako gastu eta inbertsioen zenbatekoa, betiere fundazioaren estatutuetan zehaztutako horren berriazko xedeak betetzeko benetan erabili badira horiek, amortizatorako eta hornikuntzarako zuzkidurak izan ezik.

Errenten eta diru-sarreraren erabileraren gaineko baldintza betetzen dela zehazteko, fundazioaren xedeak betetzeko erabili diren inbertsioak finantzatuta badira zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarrerekin (hala nola, dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak) edo besteren finantza baliabideekin, aipatu inbertsio horiek konputatuko dira diru-sarrerak konputatzen diren proportzio berean edo besteren finantzaketa amortizatzen den moduan.

6. Fundazioak errentak erabiltzen ahalko ditu aurreko 1. apartatuak aipatzen duen proportzioan, haiek jasotzen dituenetik 4 urteko epean. Artikulu

honetako 2., 3., 4. eta 5. zenbakietan ezarritako doikuntzak aplikatzean zuzendutako kontabilitate-emaizta negatiboa bada, emaitza horrek hurrengo urteetako helburuetara bideratzeko betebeharra murriztuko du.

7. Memorian eman beharreko informazioaren ondorioetarako, fundazioaren xedearen betetze-mailari dagokionez, ehuneko 70eko portzentajea zer emaitzaren gainean aplikatzen den zehaztuko da, eta fundazioaren xedeetarako erabiltzen diren gastuak eta inbertsioak, baita administrazioko gastuen zenbatekoa ere.

Aurreko ekitaldietako aplikatu gabeko saldoei dagokienez ere sartuko da informazio hori.

8. Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen administrazioak zuzenean sortutako gastuen zenbatekoak, patronatuko kideei, horretarako eskubidea dutenean, ordaindu beharreko gastuena gehituta, ez du gaindituko zenbateko hauetako handiena:

a) Funts berekien ehuneko 5.

b) Fundazioaren kontabilitate emaitzaren ehuneko 20, artikulua honetan ezartzen diren doikuntzekin zuzendu ondoren.

#### **48. artikulua.** Jarduera ekonomikoak.

1 Fundazioek jarduera ekonomikoak betetzen ahalko dituzte baldin eta horien helburua fundazioaren xedeekin loturik badago edo horien osagarria nahiz gehigarria bada.

2. Halaber, era guztietako jarduera ekonomikoetan esku hartzen ahalko dute sozietateetan duten parte-hartzearen bidez, indarreko araudian aurreikusitakoarekin bat.

3. Fundazioek ezin izanen dute partaidetzarik izan merkataritza-sozietateetan, horietan modu pertsonalean hartu behar badute sozietatearen zorren gaineko erantzukizuna.

Zuzkiduraren parte baldin badira aurreko paragrafoan aipatzen diren sozietateetan fundazioak dituen partaidetzak, eta partaidetza horiek gehien-goia osatzen badute, fundazioak berehala egin beharko ditu sozietate horiek eraldatzeko behar diren jarduketak, fundazioaren erantzukizuna mugatzen duen forma juridikoa har dezaten.

**49. artikulua.** Kontabilitatea, auditoretza eta aurrekontuak.

1. Fundazioak kontabilitate ordenatua eta bere jarduerarako egokia izan beharko du, egindako eragiketen jarraipen kronologikoa egitea ahalbidetzen duena. Fundazioei nahitaez aplikatu beharrekoak izanen dira Kontabilitateko Plan Orokorreko

egokitzapen arauak, irabazi-asmorik gabeko entitateentzat ezarritakoak.

2. Urtero, fundazioaren patronatuak ondasunen inbentarioa, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua eginen ditu, zeinetan egiazkotasunez jaso behar baita zein den fundazioaren ekonomia, finantza eta ondare egoera; horrez gain, memoria bat prestatuko du, fundazioaren jarduerak eta kudeaketa ekonomikoa zein izan diren azaltzeko, finantzaketa-taula ere barne dela, eta fundazioaren helburuak zenbateraino bete diren adierazteko. Memorian zehaztuko da, halaber, ondarea nola aldatu den eta gobernu, zuzendaritza eta ordezkariak organoetan zer aldaketa izan diren.

3. Fundazioek Babesletzari aurkeztuko dizkiote aurreko apartatuan aipatzen diren agiriak, hurrengo ekitaldiko lehenbiziko sei hilabetean.

4. Fundazioen kontuei kanpoko auditoretza eginen zaie, ekitaldia ixten den egunean, inguruabar hauetako bi gutxienez gertatzen badira:

a) Aktiboko partidek guztira 1.803.000 euro baino gehiago egitea.

b) Urteko sarreraren zenbateko garbia 3.606.000 euro baino gehiagokoa izatea.

c) Ekitaldian lanean izandako langileak batez beste berrogeita hamar baino gehiago izatea.

Kanpoko auditoretza eginen zaie, halaber, fundazioko patronatuaren iritziz hala komeni den kontuen kasuan, haien inguruabar bereziengatik.

Auditoretzako txostenak babesletzari aurkeztuko zaizkio, egin eta hiru hilabeteko epean.

5. Babesletzak Nafarroako Fundazioen Erregistroan gordailutuko ditu kontuak. Kontuen publikotasunari dagokionez, erregelamenduz horri buruz ezartzen dena beteko da.

6. Patronatuak jarduketa plan bat egin eta bidaliko du babesletzara ekitaldi bakoitzeko azken hiru hilabetean, eta bertan jasoko ditu hurrengo ekitaldirako helburuak eta aurreikusitako jarduerak.

7. Jarduera ekonomikoak egiten direnean, fundazioen kontabilitatea indarreko araudian xedatutakoarekin bat etorriko da. Urteko kontu bateratuak egin beharko dira fundazioa baldin badago araudian sozietate nagusietarako aurreikusitako kasu batean.

Nolanahi ere, informazio zehaztua jaso beharko da memoriaren berariazko atal batean, eta bertan adierazi merkataritza jarduerari atxikitako ondare elementu guztiak.

8. Erregelamenduz ezartzen ahalko dira artikuluhonetan aipatzen diren agiriak aurkezteko nahitaez erabili beharreko ereduak.

**50. artikulua.** Ekitaldi ekonomikoa.

Fundazioaren ekitaldi ekonomikoa urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko da, estatutuetan bestelakorik xedatzen ez bada.

**III. TITULUA**

**Administrazioaren esku-hartzea**

**I. KAPITULUA**

**Nafarroako Fundazioen Erregistroa**

**Lehenengo atala  
Xedapen orokorrak**

**51. artikulua.** Xedea.

1. Nafarroako Fundazioen Erregistroaren xedea da foru lege honen aplikazio esparruaren menpe dauden fundazio eta ordezkariak inskribatzea, bai eta fundazioen egintzak ere, haien bizitzarako garrantzia dutenak.

2. Nafarroako Fundazioen Erregistroaren xedea da publikotasuna ematea inskribatutako fundazio eta ordezkariari, indarreko araudian aurreikusitako ondorio juridikoekin.

**52. artikulua.** Izaera eta atxikipena.

1. Nafarroako Fundazioen Erregistroak izaera administratiboa du eta publikoa da, eta biltzen dituen idazpenak egiazkotzat hartzen dira, foru lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakoarekin bat.

2. Nafarroako Fundazioen Erregistroa bakarra izanen da eta Nafarroako Gobernuan lehendakariaren arloan eskumena duen departamentuari atxikita egonen da.

3. Erregistroaren egitura, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez garatuko dira.

**53. artikulua.** Erregistroaren printzipioak.

Nafarroako Fundazioen Erregistroak, inskripzio eta publikotasun eginkizunak betetzeko, printzipio hauei loturik jardun behar du:

a) Titulazio Publikoa: Erregistroko inskripzioa eginen da, oro har, agiri publiko kautotu batean, erregelamenduz ezartzen denarekin bat.

b) Legitimazioa: erregistroaren edukia zehatz eta baliozkotzat hartzen da. Erregistroko idazpenak epaitegien zaintzapean daude eta ondorioak izanen dituzte harik eta inskribatu arte haien zehaztasun ezaren edo baliogabetasunaren gaineko adierazpen judiziala edo, kasua bada, ebazpen administratiboa. Inskripzioak ez ditu baliozkotzen antolamendu juridikoaren arabera baliogabeak diren egintzak eta kontratuak.

c) Fede Publikoa: Erregistroko idazpenen zehaztasun ezaren edo baliogabetasunaren gaineko deklarazioak, bai eta inskribatu beharrekoak diren baina inskribatu ez diren egintzek ere, ez dituzte kaltetuko hirugarrenek fede onez eskuratutako eskubideak. Hirugarrenen fede ona dagoela uste izanen da egintza horien berri zutela frogatzen ez den bitartean.

d) Lehentasuna: edozein titulu behin Erregistroan inskribatuta, ezin izanen da besterik inskribatu edo idatzi, data berekoa nahiz lehenagokoa, inskribatutakoaren kontrakoa edo bateraezina bada.

e) Lehentasuna: erregistroan aurrena sartzen den agiriak lehentasuna izanen du ondoren sartzen direnen aurretik, eta kasuan kasuko erregistro eragiketarako agiriak aurkezten diren ordenan bete beharko dira.

f) Hasierako egintzaren segidako tratua: fundazio edo ordezkariari bati dagozkion egintzak inskribatzeko, aurretik hura inskribatu beharko da.

g) Aurreko egintzaren segidako traktua: aurretik emandako egintzak aldatu edo azkentzen dituzten egintzak inskribatzeko, aurretik horiek inskribatu beharko dira.

h) Publikotasuna: Erregistroa publikoa da eta erregistroaz arduratzen den organoari dagokio erregistro-idazpenen edukiaren tratamendua, haren zuzeneko publikotasuna gauza dadin eta idazpenetan manipulazio edo okerreko sarbiderik ezinezkoa izatea bermatua izan dadin.

**54. artikulua.** Tramitazio elektronikoa.

1. Nafarroako Fundazioen Erregistroak erraztu du informazioaren eta komunikazioen teknologietan oinarritutako sistemak erabil daitezzen prozedurak kudeatzeko, erregistro-idazpenak egiteko eta herritarrekiko eta fundazioekiko harremanak bideratzeko, eta, horretarako, informazio sistema bat ezarriko du, Nafarroako Gobernuko egoitza elektronikoa txertatuko dena, administrazio prozedura arautzen duen oinarritzko legerian ezarritakoari jarraikiz.

**54. artikulua.** Tramitazio elektronikoa.

1. Nafarroako Fundazioen Erregistroak erraztu du informazioaren eta komunikazioen teknologietan oinarritutako sistemak erabil daitezzen prozedurak kudeatzeko, erregistro-idazpenak egiteko eta herritarrekiko eta fundazioekiko harremanak bideratzeko, eta, horretarako, informazio sistema bat ezarriko du, Nafarroako Gobernuko egoitza elektronikoa txertatuko dena, administrazio prozedura arautzen duen oinarritzko legerian ezarritakoari jarraikiz.

2. Bide telematikoak erabiliz egiten den tramitazioak errespetatu beharko ditu datu pertsonalen babesaren arloko indarreko legeriak bitarte horien erabilerari ezartzen dizkion mugak.

**55. artikulua.** Fundazioen beste erregistro batzuekiko harremanak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak koordinazio, lankidetzeta eta elkarlanerako behar diren harremanak izanen ditu fundazioen erregistroen titular diren beste administrazio publiko batzuekin, inskripzio bikoitzak saihestearren.

2. Era berean, Erregistroak, bere eskudantziak baliatuz, informazio edo laguntza eskatzen ahalko die Estatuko Administrazio Orokorrean edo autonomia erkidegoetako administrazioetan erregistro eta babesletza eginkizunak betetzen dituzten organo eta entitateei, eta sustatuko du behar diren neurriak hartu eta behar diren teknologiak ezar daitezzen Nafarroako Fundazioen Erregistroa eta fundazioen beste erregistro batzuk elkarlotzea ahalbidetzeko.

**56. artikulua.** Notarioen bulegoekiko lankidetzeta.

1. Nafarroako Gobernuak ahaleginduko da ezartzen behar diren bitartekoak, eraginkorrak eta, gehienbat, telematikoa, bai Nafarroako Fundazioen Erregistroak bai notarioek azkar, efizientziaz eta prozedura sinplifikatuekin bete ditzaten fundazioen arloan dituzten eskumen eta eskudantziak.

2. Hala izan dadin, Nafarroako Gobernuak sustatuko du lankidetzeta hitzarmenak sinatzea Nafarroako Notarioen Elkargoarekin eta Notarioen Kontseilu Nagusiarekin, helburu honekin: foru lege honen menpe dauden fundazio eta ordezkarietzekin lotuta dauden erregistroko inskripzioak eskatzen direnean, erraztea notarioen agiri publikoaren igorpen telematikoa, agiri horien bidez fundazio eta ordezkarietza horiek eratu, arautu, egintzak edo izendapenak erabaki, aldatu, bat egin edo azkentzen badira. Era berean, aukera emanen da notarioek, beren eginkizun publikoa betetzen, kontsulta dezaten telematika bidez Fundazioen Erregistroko liburuen edukia.

### Bigarren atala

#### Nafarroako Fundazioen Erregistroaren edukia, prozedurak eta oinarrizko antolaketa

**57. artikulua.** Eginkizunak.

Nafarroako Fundazioen Erregistroari dagokio eginkizun hauek betetzea:

a) Tramitatzea eta ebaztea inskripzio eskararak, erregistroan sartu behar direnak foru lege honetan eta haren garapenerako araudian xedatutakoarekin bat. Erregistroak inskripzioen gaineko kontrola egingen du, eta, horretarako, babesletzaren eta tributu arloko eskumena duen departamentuaren lankidetzeta eskatzen ahalko du.

Erregistroak arlo penaleko legezketasun ezaren arrazoizko zantzuak aurkitzen baditu fundazio baten eraketan, ebazpen arrazoitua emanen du, eta dokumentazio osoa igorriko du Fiskaltzara edo organo jurisdikzional eskudunera, eta horren berri emanen dio fundazio interesdunari; horrelakoetan, inskripzioa egiteko prozedura etenda geldituko da ebazpen judizial irmoa eman arte.

b) Erregistroan utzitako agiriak artxibatzea eta zaintzea.

c) Erregistroaren publikotasuna.

d) Izenaren erreserbari buruzko ziurtagiriak ematea, bai eta izenari buruzko ziurtagiri negatiboa ere, frogatzen duena Nafarroako Fundazioen Erregistroan ez dagoela izen bereko fundaziorik, ez eta nahasbidea sor dezakeen antzeko izen bat duenik ere.

e) Txosten teknikoak eta estatistikoak egitea, beste organo edo erakunde publiko batzuek beren eskumenak betez eskatzen badituzte.

f) Babesletzari komunikatzea egindako inskripzio guztiak.

g) Tributuen arloan eskumena duen departamentuari komunikatzea tributu araubide bereziari atxikita dauden fundazioez egindako inskripzio guztiak.

h) Estatuaren eskumeneko fundazioen erregistroari komunikatzea, jasota geratu eta publikoa izan dadin, fundazioak eratzeko inskripzioak edo, kasua bada, azkentzekoak, baita beste edozein inskripzio ere, indarreko araudiaren arabera horiek komunikatzea nahitaezkoa bada.

i) Fundazioek Erregistroan gordailutu dituzten kontuen publikotasuna, erregelamenduz ezartzen den moduan.

j) Indarreko araudiak esleitzen dion beste edozein eginkizun.

**58. artikulua.** Egintza inskribagarriak.

1. Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira:

a) Nafarroako Foru Berriaren eta foru lege honen xedapenen arabera eratutako fundazioa.

b) Estatuko araudiaren arabera edo arlo honetako eskumena duten autonomia erkidegoetako araudi berekien arabera eratutako fundazioak, beren estatutuak aldatzen badituzte foru araudira egokitzeko, helbidea Nafarroako lurralde-esparruan ezarri nahi dutelako eta nagusiki bertan garatu beren jarduerak.

c) Inskribatutako fundazioen fundazio-aktaren edo estatutuen edukiaren aldaketa. Kasu hauetan ukatzen ahalko da aldaketaren inskripzioa:

Lehena. Indarreko araudiaren kontrakoa denean.

Bigarrena. Fundatzaileen berariazko debeku bat urratzen duenean.

Hirugarrena. Fundazioaren helburua errespetatzen ez duenean.

d) Patronatuko kideak berritzea,

e) Inskribatutako fundazioen bat-egitea eta zatiketa.

f) Inskribatutako fundazioen azkentzea eta likidazioa, ondasunen erabileraren berri ere emanez. Behin likidazioa burututa dagoela, Erregistroak baja emanen dio entitateari erregistroan.

g) Inskribatutako fundazioek ahalak ematea eta errebokatzea.

h) Erregistroan inskribatutako fundazioek beste autonomia erkidego batzuetan jarduteko eratzten dituzten ordezkariak eta jarduera Nafarroako Foru Komunitatean betetzen duten atzerriko fundazioen ordezkariak.

i) Inskribatutako fundazio eta ordezkari zentzatz garrantzia duen beste edozein egintza, patronatuak inskribatzea eskatzen badu.

2. Erregistroan idazpen bidez jasoko dira epaitegiek eta auzitegiek, inskribatutako fundazioei dagokienez, jakinarazten dituzten ebazpen judizialak, beste erregistro batzuek egindako inskripzioen komunikazioak, baldin eta ondorioak badiutuzte Foru Komunitatean ukitzen dituzten fundazioen jardunean, eta aurrekoen pareko beste ebazpen publiko batzuk.

3. Erregistroan jasoko da, halaber, tributu araubide berezia eskuratzea eta galtzea, horien idazpena eginez.

4. Erregistroan gordailutuko dira fundazioen kontuak, foru lege honen 49.5 artikularekin bat.

5. Erregistroko inskripzioak eta erregistroaren publikotasun egintzak tasen eta prezio publikoen arloan inskribatzeko unean indarra duen foru araudiaren menpe egonen dira.

#### **59. artikulua.** Erregistroaren publikotasuna.

1. Fundazioen Erregistroa publikoa da haren edukia ezagutzeko interesa duten pertsona eta entitate guztientzat; erregistroaren publikotasuna gauzatzeko, idazpenen edukia ziurtatuko da, egindako inskripzioekin lotura zuzena duten idazpenen

eta agiri gordailutuen gaineko informazio-ohar soilaren bidez edo kopiaren bidez, bai eta zerrenden bidez ere, ahal dela baliabide informatikoak edo telematikoak erabiliz.

2. Erregistroaren publikotasuna gauzatzeko prozedura erregelamenduz ezarriko da, eta betiere datu pertsonalen babesaren arloan indarra duen araudian ezarritako baldintzak bete beharko dira.

## **II. KAPITULUA** **Babesletza**

### **60. artikulua.** Xedea eta izaera.

1. Nafarroako Fundazioen Babesletza fundazioei aholkua eta laguntza tekniko emateko erakunde bat da, fundazio eskubidea behar bezala baliatzea zaindu, erraztu eta sustatuko duena, bai eta fundatzaileen borondatea eta fundazioaren xedek egiaz betetzea ere.

2. Babesletzak bere eginkizunak betetzen ditu fundazioen kudeaketa eta jardunbiderako autonomia errespetatuz.

3. Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatutako fundazio guztiak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Babesletzaren menpe egonen dira, zeina kasu bakoitzean departamentu batek beteko baitu, hain zuzen ere gaia dela-eta fundazioaren xede nagusiekin lotutako eskudantziak dituenak, fundazio bakoitzaren estatutuetan horiek nola deskribatzen diren kontuan hartuz. Modu horretara zehazterik ez badago zein den departamentu eskuduna, lehendakariaren arloko eskumena esleiturik duena izanen da.

4. Departamentu bakoitzaren esparruan, babesletza idazkaritza tekniko nagusiek beteko dute, salbu eta departamentuak beste organo bati esleitu baldin badio eskumen hori bere egitura organikoan.

### **61. artikulua.** Babesletzaren eginkizunak.

1. Hauek dira babesletzaren eginkizunak:

a) Zaintzea fundazio eskubidea behar bezala baliatzen dela, egiaz betetzen direla fundazioaren xedek eta fundazioaren xedek eta egiaz garrantzen diren jarduerak bat datozela.

b) Erregistroarekin elkarlanean aritzea, fundazio eskubidearen erabilera bermatzearren inskripzioak legezkoak direla zainduz. Hala izan dadin, Erregistroak informazioa eskatuz gero inskripzioak egin edo ukatzeko, babesletzak honen berri emanen dio: fundazioaren helburuak egokiak diren, zuzkidura nahikoa den, estatutuei edo haien aldaketek buruz duen iritzia, eta fundazioen bat-egite,

zatiketa, azkentze eta likidazio kasuetan aurkeztutako dokumentazioari buruzko iritzia.

c) Onuradunak zein diren zehaztean inpartzialtasunaren eta diskriminazio ezaren irizpideak behar bezala aplikatzen direla zaintzea, hori guztia fundatzaileen borondatearekin bat, eta kontuan hartuz interes orokorra erdiestea.

d) Noiznahi zaintzea zuzkidura egokia eta nahikoa dela fundazioaren helburuak egiaz bete daitezen, horrek ukatu gabe gai horretan patronatuak duen erantzukizuna.

e) Zaintzea fundazioaren baliabide ekonomikoak fundazioaren xedeetarako erabiltzen direla.

f) Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatutako fundazioei aholku ematea haien araubide juridikoaz, araubide ekonomiko-finantzarioaz eta kontabilitatekoaz, bai eta fundazioek beren helburuak betetzeko garatzen dituzten jarduerekin lotutako gaiei buruz, eta horretarako behar den laguntza ematea.

g) Foru lege honetan eta indarreko gainerako arauetan ezartzen diren gainerako eginkizunak.

2. Babesletzaren eskumeneko eginkizunak betetzeko, fundazioek kudeaketa txosten bat aurkeztu beharko dute urtero, aurreko apartatuaren arabera ebaluatzea ahalbidetuko duena.

3. Babesletza legitimaturik dago patronatuaren egintzak eta erabakiak aurkaratzeko, fundazioa zuzentzen duten lege aginduen edo estatutueta-koen kontrakoak badira.

4. Babesletzak, bere eginkizunak betetzen ari delarik, arlo penaleko legezkotasun ezaren arrazoizko zantzuak aurkitzen baditu fundazio baten jardueran, ebazpen arrazoitua emanen du, eta dokumentazio osoa igorriko du Fiskaltzara edo organo jurisdikzional eskudunera, eta horren berri emanen die fundazio interesdunari eta Fundazioen Erregistroari.

#### **62. artikulua.** Aldi baterako esku-hartzea.

1. Babesletzak, bere eginkizunak betetzen ari delarik, kudeaketa ekonomikoan irregulartasun larri bat atzematen badu, fundazioaren iraupena arriskuan jar dezakeena, edo desbideratze larri bat fundazioaren helburuen eta egindako jardueraren artean, patronatuari entzun ondoren hura zuzentzeko behar diren neurriak hartzeko eskatuko dio.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den errekerimenduari erantzun ezean horretarako adierazten den epean, Babesletzak eskatzen ahalko dio agin-

te judizialari erabaki dezala, patronatuari entzun ondoren, fundazioan aldi baterako esku hartzea.

3. Fundazioan esku hartzeko baimen judiziala lortu ondoren, Babesletzak hartuko ditu bere gain patronatuak legez eta estatutuen arabera dituen eskudantzia guztiak agintari judizialak ezartzen duen denboran. Esku-hartzea bertan behera gertatu da ezarritako epea bukatzean, non ez den onartzen hura luzatzea beste ebazpen judizial baten bidez.

4. Fundazioan aldi baterako esku hartzea erabakitzen duen ebazpen judiziala Nafarroako Fundazioen Erregistroan idatziko da.

#### **63. artikulua.** Baimenak.

1. Foru lege honen aplikazio esparruan dauden fundazioek, estatutueta hala xedaturik badago, Babesletzari baimena eskatuko diote fundazioaren zuzkiduraren parte diren ondasun edo eskubideak erabili, besterendu, dela kostu bidez dela dohainik, edo zergapetzeko, bai eta fundazioaren helburuekin zuzenean lotuta daudenen kasuan ere, eta baimen hori lortzeko bidezko arrazoia duela frogatu beharko du.

2. Ulertzen da fundazioaren ondasunak eta eskubideak haren helburuekin zuzenean lotuta daudela lotura jasota baldin badago berariazko borondatearen adierazpen batean, dela fundatzaileena, patronatuarena edo fundazioari borondatezko ekarpena egiten dion pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatu batena, betiere ekarritako ondasun eta eskubideen gainekoa. Lotura hori egiten ahalko da, halaber, Babesletzaren edo agintari judizialaren ebazpen bidez.

3. Babesletzak baimen eskaeraren gaineko ebazpen arrazoitua eman eta fundazioari jakinaraziko dio gehienez ere hiru hilabeteko epean, eskaera jaso zenetik hasita; Nafarroako Fundazioen Erregistroari ere komunikatuko dio.

4. Epe hori berariazko ebazpenik komunikatu gabe iraganik, baimena eman dela ulertuko da.

#### **64. artikulua.** Komunikazioak.

1. Fundazioek honako egintza hauen berri emanen diote Babesletzari, honek behar bezala eta egiaz bete ditzan bere eginkizunak:

a) Karga duten legatuak edo kostu bidezko edo ordainsaripeko dohaintzak onartzea eta jaraunspenak, dohaintzak edo kargarik gabeko legatuak arbuizatzea.

b) Fundazioaren beste ondasun eta eskubide batzuk, zuzkiduraren parte ez direnak edo fundazioaren helburuak betetzearekin zuzenean lotura-

rik ez dutenak, erabiltzeko egintzak, transakzio edo konpromisoa barne, eta ondasun higiezinak, merkataritza edo industria establezimenduak, kultur intereseko ondasunak eta, onartutako azken balantzearen arabera, fundazioaren aktiboaren 100eko 20tik gorako zenbatekoa dutenak (zein den ere haien xedea) kargatzekoak.

2. Patronatuak aurreko 1 zenbakiko a) letran aipatzen diren egintzen berri emanen dio Babesletzari gehienez ere egin ondoko hamar egun balioduneko epean, eta hogeita hamar egun balioduneko epean b) letraren kasuan.

3. Komunikazioak ikusirik, Babesletzak dagoz-kion erantzukizun egintzak baliatzen ahalko ditu patronatuko kideen aurka, patronatuaren egintzak kaltegarriak badira fundazioarentzat, foru lege honetan aurreikusitako moduan.

#### **65. artikulua.** Errekurtso juridikzionalak.

Babesletzaren egintzek amaiera ematen diote bide administratiboari eta aurkaratzen ahalko dira administrazioarekiko auzien ordena juridikzionalan.

#### **66. artikulua.** Aholkularitza fundazioei.

1. Nafarroako Gobernuak sustatuko du bere web orrian behar diren bitartekoak eskura jartzea fundazioek informazioa izan dezaten eta haien gaineko erregulazioarekin lotuta kontsultak egin ahal izan ditzaten.

2. Babesletzak kontsulta horiei emandako erantzunak informatiboak izanen dira eta aplikatuko dira soilik kontsulta egiten duen pertsonak edo entitateak planteatutako egitatezko kasuetan, eta ezin dira inola ere erabili interpretaziorako irizpide orokor gisa.

### **III. KAPITULUA**

#### **Foru Administrazio Publikoaren Fundazio Publikoak**

#### **67. artikulua.** Definizioa eta nortasun juridikoa.

1. Fundazio publikoak dira Foru Administrazio Publikoaren esparruan sortutakoak bere eskumeneko helburuak gauzatzeko, Foru Zuzenbide Zibilarren Konpilazioarekin eta foru lege honekin bat. Entitate sortzailearen eskumen esparruari loturiko jarduerak bakarrik egiten ahalko dituzte.

2. Sortzen direnean, fundazioaren ondarea gehienbat osatuko dute fundatzailearen zuzeneko edo zeharkako diru-ekarpenek.

3. Foru Administrazio Publikoaren fundazio publikoak dagokien arloko eskumena duen departamentuaren tutoretzapean egonen dira, eta orde-

namendu juridiko pribatuak zuzenduko ditu, ezertan ukatu gabe foru lege honetan eta kontratazioari, aurrekontuei, kontabilitateari eta finantzen kontrolari buruz aplikatzekoa den araudi administratiboan ezarritako berezitasunak.

4. Nafarroako fundazio publikoek ez dute inolaz ere izanen aginte publikoa erabiltzeko ahalmenik.

#### **68. artikulua.** Araubide juridikoa.

1. Foru Administrazio Publikoaren fundazio publikoen sorrera, hasierako zuzkidura, estatutuak eta araubide juridikoa bat etorriko dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 67. eta 68. artikuluetan, foru lege honen xedapenetan eta fundazioen arloan aplikatzekoa zaien gainerako araudian ezarritakoarekin.

2. Fundazio publikoen aurrekontu, ekonomia eta finantza araubidea Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ezarritakoa izanen da.

3. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 44.3 artikuluan, e) letran, xedatutakoarekin bat, Nafarroako fundazio publikoek berdintasun planak egin beharko dituzte.

4. Pertsona juridiko-publikoek eraturako fundazioek aurreikusten ahalko dute beren estatutuetan likidazioaren ondoriozko ondasunak eta eskubideak fundatzaileari itzultzea.

**Lehen xedapen iragankorra.** Babesletza ofizioz esleitzea.

1. Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatuak izanik, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legearen bidez egin zen erreforma baino lehenagoko testuarekin bat Nafarroako Fundazioen Babesletzari atxikita ez dauden fundazioei Erregistroaren bidez jakinaraziko zaie Nafarroako Gobernuaren zer departamentuk eman beharko dien Babesletza hori.

2. Babesletza esleitzeko epea sei hilabetekoa izanen da foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Inskribatutako fundazioak.

1. Nafarroako Fundazioen Erregistroan foru lege honek indarra hartu aurretik inskribatuta dauden fundazioak foru lege honen menpe egonen



dira, beren nortasun juridikoa eta gaitasun osoa gordeta. Fundazio horiek bi urteko epea izanen dute beren estatutuak foru lege honen aurreikuspenetara egokitzeko.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den epea iraganik, Nafarroako Fundazioen Erregistroak ez du eginen fundazio batek eskatutako inskripziorik aurreko apartatuan aipatzen den estatutuen egokitzapena egin gabe badu.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

1. Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

2. Bereziki, hauek indargabetzen dira:

a) Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen I. tituluko II., III., IV. eta V. kapituluak eta lehen xedapen gehigarria.

b) Nafarroako Fundazioen Erregistroaren egitura eta funtzionamendua arautzen dituen azaroa-

ren 11ko 613/1996 Foru Dekretua, honen aurka egiten duen guztian; gainerako artikuluek indarrean segituko dute.

**Azken xedapenetako lehena.** Erregelamendu bidez garatzea.

Nafarroako Gobernuan lehendakaritza arloko eskumena duen departamentuaren titularrari gaikuntza ematen zaio behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan foru dekretu honetan xedatutakoa aplikatzeko, garatzeko eta betearazteko.

**Azken xedapen berria.** Arau-igorpenak.

Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean bere artikulua indargabetuetara egingdako arau-igorpenak foru lege honetako artikuluetara egingdako arau-igorpenetzat hartuko dira.

**Azken xedapena.** Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.



---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da bultzaz dezan Red Eléctrica Españolaren 2021etik 2026ra bitarteko Plana lehenbailehen onets dadin.**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita bultzaz dezan Red Eléctrica Españolaren 2021etik 2026ra bitarteko Plana lehenbailehen onets dadin.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Garapen Ekonomiko eta Enpresari-leko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko.

Lizarrako merindadeak arazo larria du argindarraren hornidurari dagokionez, eta horrek kalte handia eragiten dio eremu horretako industria-egiturari, aldiro pairatzen baititu mikroetenak, ukitutako enpresa batzuetan kalte ekonomiko larriak eragiten dituztenak.

Hori da LASEME-Lizarrako Merindadeko Enpresen Elkargoak hainbat toki eta alditan egindako adierazpenek agerian utzi dutena. Azkena, Parlamentu honetako Garapen Ekonomikorako Batzordean egindako agerraldian.

Behin eta berriro eskatu dute azpiestazio elektriko bat eta sare berri bat paratzea, baina eskari horri ez diote inoiz ere jaramonik egin ez Red Eléctricak ez kasuko ministerioak ere, horiei baitagokie, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legean ezarritakoarekin bat, hori idaztea eta garatzea, honako hau ezartzen baitu hitzez hitz:

“Plangintza elektrikoa Estatuko Administrazio Orokorra eginen du, autonomia erkidegoen eta Ceutako eta Melillako hirien parte-hartzearekin, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak txostena egin ondoren eta entzunaldiaren izapidea bete ondoren. Diputatuen Kongresuari aurkeztuko zaio, haren erregelamenduan ezarritakoarekin bat, Gobernuak onetsi aitzin, eta sei urterako indarraldia izanen du”.

Energia Elektrikoaren Garraio-sarea Garatzeko 2015-2020 Planean ez zen aurreikusten eremu horretan inolako jarduerarik egitea, baina Garapen Ekonomikorako Departamentua behin eta berriz saiatuta lortu zen Ministroen Kontseiluak 2018ko uztailaren 27an onetsi zezan “Plangintza dokumentuaren alderdi zehatz batzuk aldatzea”, halako moduan non II. eranskinean jaso baitzen merindaderako azpiestazio bat paratzea.

Premia larria denez, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, kasuko ministerioaren bitartez bultzaz dezan Red Eléctrica Españolaren 2021etik 2026ra bitarteko Plana lehenbailehen onets dadin (bertan, Estellerria azpiestazio berri bat, 220Kv-koa, eta Muru Artederreta-Estellerria zirkuitu bikoitzeako linea berri bat, 220Kv-koa, jasota ageri dira), eta al bait lasterren zertu dadin.

Iruñean, 2021eko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

**Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen da bere erantzukizunaren aitortza publikoa egin dezan Iruñeko herritarren aitzinean oro har eta 1978ko Sanferminetan iruindarrek pairatu zuten polizia-jokabidearen biktima guztien aitzinean bereziki.**

*GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita bere erantzukizunaren aitortza publikoa egin dezan Iruñeko herritarren aitzinean oro har eta 1978ko Sanferminetan iruindarrek pairatu zuten polizia-jokabidearen biktima guztien aitzinean bereziki.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herritarrekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Herritarrekiko Harremanetako Batzordean presako prozeduraren bidez eztabaidatu eta bozkatzeko:

Sanfermines 78 Gogoan elkartearen ordezkariak lan-bilkuran agerraldia egin zuten iragan apirilaren 14an, non 1978ko sanferminetako gertakariak direla-eta –Germán Rodríguez balaz zauritu eta hil egin zen– egiarako eta justiziarako eskubidean aurrerabidea egiten jarraitu beharri buruz hausnartu baitzuten, eta gogora ekarri zituzten 2017an eta 2019an hartutako erabakiak. Memoria demokratikoari buruzko etorkizuneko legeari buruz ere hausnartu zuten (oraindik aurreproiektua da), aurrerapausoak balioetsi zituzten eta frankismoaren krimenen egia, justizia eta errepa-

razioa lortzearen arloetan zer hobetu daitekeen planteatu zuten.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten ditu 1978ko Sanferminetako gertakariak direla-eta lehenago hartutako erabakiak.

– 2017ko azaroaren 27ko erabakia, zeinaren bidez Gobernu zentralari eskatzen baitzaio desklasifika dezan 1978ko Sanferminetan Iruñean izandako gertakariak direla-eta Barne Ministerioan, Defentsa Ministerioan nahiz bestelako edozein administrazio-instantzia ofizialetan dagoen dokumentazio guztia.

– 2019ko martxoaren 15eko erabakia, zeinaren bidez babesa ematen baitzaio 1978ko Sanferminetan Iruñean izandako gertakariak direla-eta Germán Rodríguez senitartekoek, poliziak balaz zauritu eta lesionatutako zenbait pertsonak, Iruñeko Peñen Federazioak eta Sanfermines-78: gogoan! elkarteak jarritako kereilari.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du bere erantzukizunaren aitortza publikoa egin dezan Iruñeko herritarren aitzinean oro har eta 1978ko Sanferminetan iruindarrek pairatu zuten polizia-jokabidearen biktima guztien aitzinean bereziki, jokabide haren ondorioz Germán Rodríguez hil baitzen, hainbat pertsona zauritu eta lesionatu baitziren eta hirian kalteak eragin baitziren.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio memoria demokratikoari buruzko legearen aurreproiektuan berriaz sar dezan frankismoaren krimenen kalifikazioa (erailketak, desagerpenak, esklabo-lana, tratu txarrak eta torturak, espoliazioa, sexu-indarkeria, espetxea...), gizateriaren aurkako krimenak diren aldetik, horien aurkako jardun judiziala ahalbidetze aldera.

4. Nafarroako Parlamentuak Sekretu Ofizialei buruzko 1968ko Lege frankista, oraindik ere indarrean dagoena, premiaz indargabetzearen edo, kasua bada, nabarmen aldatzearen aldeko apus-

tua egiten du, eta onesten den araudi berria gardentasunaren eta herritarrek informazioaren eskuragarritasun erabatekoa izatearen printzipioetan oinarritu dadila eskatzen du.

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Foru parlamentariak: Javi Arakama Urtiaga, Bakartxo Ruiz Jaso, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da Osasun Departamentuaren eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren arteko lankidetzaren sinergiko bat ezar dezan, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen garapenari bultzada nabarmena emateko, azpimarra arrisku psiko-sozialetan jarrita.**

### *ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bazarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Osasun Departamentuaren eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren arteko lankidetzaren sinergiko bat ezar dezan, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen garapenari bultzada nabarmena emateko, azpimarra arrisku psiko-sozialetan jarrita.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak ezartzen du enpresa

guztiek bete behar duten esparru juridikoa, bai eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak ere.

Beste ezer baino lehen bilatzen ditu prebentzioa eta ukitutako eragileen betebeharrak eta ardurak ezartzea; batik bat, enpresaburuenak, baina baita langileenak ere. Xede du langileen segurtasuna eta osasuna sustatzea; hartara, printzipio orokor gisa ezartzen ditu lanbide-arriskuen prebentzioa, segurtasuna eta osasuna babestea, lanaren ondoriozko arriskuak baztertu edo murriztea, langileen informazioa, kontsulta, parte-hartzea eta prestakuntza prebentzioaren arloan, lan-esparruan prebentzioaren kultura sustatuta.

Ezarri zenez geroztik, bere argi-ilunekin, 25 urte joan direnez, lege horren aplikazioaren berrikusketa bat egiteko unea da, azpimarra non jarri behar den aztertze. Hau da, eraginkorrak izan diren neurriei eutsi behar zaie eta kontrol-neurriak indartu behar dira, enpresak sentsibilizatzen eta haiei pizgarriak ematen jarraitu behar da prebentzioaren kultura barnera dezaten, politika guztietan osasuna lehenetsita eta laneko osasunaren arloko politikak birbideratuta.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak garapen eskasena izan duen arloetako bat izan da, hain zuzen ere, arrisku psiko-sozialena. Ez da erraza arrisku horiek detektatzea edo horiek ekiditeko edo murrizteko neurriak proposatzea, eta beraz, sarritan, ez da neurririk hartzen.

Baina gaur agerian geratzen ari diren eta etorkizunari begira joera diren beharrezkoen datuak eta bilakaera aztertzen baditugu ikusten dugu zenbait alderi nabarmentzen direla : arrisku psiko-sozialek magnitude pandemikoak hartuko dituzte gizartean oro har, eta lan-mundutik eratorritakoekin zuzenean lotutakoak ohiko istripuak baino presentzia gero eta handiagoa izaten ari dira, eta askotan erraztu besterik ez dute egiten gisa horretako istripuak gertatzeko baldintzak sortzea.

Burnoutaz harago, jazarpen moralaz eta laneko jazarpenaz harago, zeinak egoera deigarriak izan baitaitezke, sufrimendu kronikoa gertatzen da, sarri askotan baliaezintasuna eragiten duten depresioak ekarrita, bai eta bestelako istripuak izateko arriskua areagotzea ere (arriskutsuak gerta daitezkeen erremintak eta makinak manipulatzeko beharrezkoa den arreta faltagatik), gidatzean arrisku handiagoko jokabideak, eta abar

Heriotza goiztiarrak ere bai. Aspaldixkotik, lanaldian zehar infartuen eta garun-isuriaren ondoriozko heriotzak dira laneko istripuetako heriotzen lehendabiziko kausa. Zailagoa da ezartzen zenbat heriotza, heriotzen zer ehuneko gertatzen den zuzenean estresagatik eta arrisku psiko-sozialeko beste faktore batzuegatik, baina argi dago harremana egon badagoela.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du Osasun Departamentuaren eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarietako Departamentuaren arteko lankidetzaren sinergiko bat ezar dezan, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen garapenari bultzada nabarmena emateko, azpimarra arrisku psiko-sozialetan jarrita.

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Torturaren Biktimei Babesa emateko Nazioarteko Eguren ospakizunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Torturaren Biktimei Babesa emateko Nazioarteko Egurenaren ospakizunarekin” (10-21/DEC-00038).

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu LGTBI+ Harrotasunaren Egunaren ospakizunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aurten ere bat egiten du LGTBI kolektiboaren harrotasunaren Egunaren ospakizunarekin, zeina heldu den ekainaren 28an eginen baita, eta sexu-askapenaren bandera jarriko du ikusteko moduko leku batean, legebiltzarrak sexu-aniztasunarekin duen konpromisoaren agerkari.

2. Nafarroako Parlamentuak giza eskubideeko konpromisoa berresten du, eta adierazten du beharrezkoa dela inbertitzea sexu-bestelakotasuna eta pertsonak beren sexu-orientazioa edo genero-identitateagatik ez diskriminatzen lagunduko duten politiketan. Horretarako, arreta, informazio, sentsibilizazio, prestakuntza eta kontzientziaziorako programak eta proiektuak garatu behar dira, gure herri eta hiriak sexu-bestelakotasunaren adierazpen guztientzako gune askeak izan daitezen.

3. Nafarroako Parlamentuak hezkidetza derri-gorrezko hezkuntza-balio gisa lantzearen aldeko apustua egiten du funts publikoekin ordaintzen diren ikastetxe guztietan.

4. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du Nafarroako LGTBI+ Foru Legea ezartzen jarraitzea, eta uste du sexu-orientazioari, genero-adierazpenari eta sexu- edo genero-nortasunari buruzko prestakuntza beharrezkoa dela administrazio publiko guztietan eta bereziki gizarte-, osasun- eta landa-arloetan.

5. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du gizarte askeago eta berdinzaleago bat eraikitzeko lan egiteko, eta eskatzen du familia-aniztasunari eta adineko LGTBI pertsoneri zor zaien errespetua emateko. Horretarako, gure Erki-degoko erakunde guztiekin, elkarteekin eta LGTBI kolektiboarekin lan egiteko konpromisoa hartzen du”. (10-21/DEC-00039).

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak pertsona guztien giza eskubideak bermatzearen aldeko konpromisoa eta pertsona errefuxiatuekiko elkartasuna agertzen baitu.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Pertsona guztien giza eskubideak bermatzearen aldeko konpromisoa eta pertsona errefuxiatuekiko elkartasuna agertzen du, erabateko zaugarritasun egoeran bizi baitira jatorrizko herrialdeetan pairatzen duten jazarpen edo beldurragatik.

2. Dei egiten die Europar Batasuneko estatu kideei, legezko bide seguruak gaitu daitezen mugak sendotu ordez, horrek milaka pertsona behartzen baititu euren bizitzak arriskuan jartzera ibilbide gero eta arriskutsuago eta hilgarriagoetan.

3. Uste du beharrezkoa dela Immigrazioaren eta Asiloaren Europako Paktuaren politiketan adostasuna bilatzeko lanean jarraitzea, bere balioekiko leiala den Europa baten alde, gerratik, jazarpenetik eta torturatik ihes egiten dutenei mugak itxi gabe.

4. Dei egiten dio Espainiako Gobernuari lanean jarrai dezan Kanariar Uharteetatik eta Ceuta eta Melillatik iritsitako pertsonak bizi duten egoerari konponbide bat emateko”. (10-21/DEC-00040).

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, AgoraLan guneari buruzkoa.***ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, AgoraLan guneari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Zein da AgoraLan gunerako aurreikusitako aurrekontua eta ekintza-egutegia? Zer partidatik finantzatuko da?

2. Nork osatzen du AgoraLan?

3. Zer helburu ezarri dira eta zer betetze-adierazle planteatzen dira?

Iruñean, 2021eko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoreen bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko.**

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak, ekainaren 1ean, honako ebazpen hau eman du:

Erakunde honen plantilla organikoan, Ganberaren zerbitzuko auditoreen bi lanpostu huts daude. Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusiak lanpostu horiek betetzeari buruzko proposamen-txostena egin du. Erakundearen zerbitzu juridikoez, kontu-hartzailtzakoek eta administratzaileak ere aldeko txostenak egin dituzte, eta Ganberako Langileria Batzordeari horren berri eman zaio. Horiek guztiak ikusirik,

### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenbizikoa.** Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoreen bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Deialdia behean jaso diren oinarrien arabera gauzatuko da.

**Bigarrena.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratu dadila xedatzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 1ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

## **Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoreen bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko**

Hona hemen deialdi honetako oinarriak

### **1. oinarria.** Arau orokorrak.

1.1. Deialdiaren xedea da Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoreen bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzea.

– Lehenengo lanpostua igoera txandari dagokio.

– Bigarren lanpostua txanda irekiari dagokio.

1.2. Honako hauetan xedatutakoarekin bat eginen da oposizio-lehiaketa: 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, eta, osagarri gisa, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, zeinaren bidez onetsi baitzen Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren testu bategina, eta hura garatzeko eta betearazteko emandako ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretua, zeinaren bidez onetsi baitzen sarrera erregelamendua.

1.3. Igoera txandako lanpostua bete gabe gelditzen bada izangairik ez dagoelako edo izangaiek lortzen ez dutelako hautaprobak gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa, txanda irekikoei gehituko zaie.

Bestaldetik, igoera txandan hutsik dauden lanpostuak baino izangai gehiagok gainditzen badute, txanda horretan prozesua gainditu baina lanposturik eskuratzen ez dituztenek aukera izanen dute txanda irekiko lanpostu hutsa eskuratzeko, txanda horretako izangaiekin lehia zorrotzean eta eskuratutako azken puntuazioaren arabera.

1.4. Deialdi honen bidez izendatzen diren izangaiek Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioentzat eta, bereziki, auditore lanpostuan aritzen direnentzat ezarritako eginkizunak beteko dituzte, eta funtzionario horiei dagozkien eskubide eta betebeharrak izanen dituzte.

Eginkizunak Kontuen Ganberari buruzko Foru Legearen 16. artikuluan zehazten dira; besteak beste honako hauek: Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoaren kontuak eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa kontrolatzea, Ganberako lehendakariari fiskalizazio txostenak proposatzea, baita fiskalizazio eginkizunetan arituz lortzen dituen emaitzak ere, eta, horiez gain, Kontuen Ganberako lehendakariak agintzen ahal dion beste zeinahi eginkizun.

1.5. Lanpostuak lanpostuen egungo sailkape-naren A mailan sartzen dira, eta horri dagozkion ordainsariak izanen dituzte, baita Nafarroako Kontuen Ganberaren indarreko plantilla organikoan zehazten diren osagarriak ere.

1.6. Izendatzen diren pertsoneri Gizarte Segurantzako araubide orokorrean alta emanen zaie eta bertan afiliatuko dira, araubide horren babesean, salbu eta Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuan eta hori osatzen duten xedapenetan aipatzen den eskubide pasiboen eta osasun eta gizarte laguntzaren araubideko kideak badira; izan ere, kasu horretan, aukera izanen dute araubide horretan segitzeko edo Gizarte Segurantzari afiliatzeko.

1.7. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokitu da, eta Kontuen Ganberako lehendakariak noiznahi aldatzen ahal du.

**2. oinarria.** Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

2.1. Lanpostua oposizio-lehiaketa bidez beteko da, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 19ko 19/1984 Foru Legearen 28. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Deialdian onartuak izateko, izangaiek, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa, edo langileen joan-etorri askea aplikatzen duen estaturen batekoa. Nazionalitatea edozein dela ere, deialdian parte hartzen ahal dute espainiarren eta Europar Batasuneko estaturen bateko herritarren ezkontideek, eta, kasuko tratatuak hala aurreikusten duenean, baita langileen joan-etorri askea aplikatzen duen estaturen bateko herritarren ezkontideek ere, zuzenbidez bereizita ez badaude.

Halaber, ezkontideen baldintza beretan, haien ondorengoek eta ezkontidearenek ere parte hartzen ahalko dute, hogeita bat urtetik beharagoak badira edo, hortik gorakoak izanez gero, haien kontura bizi badira.

b) 16 urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

c) Merkataritzako irakasle titulua, Zuzenbideko lizentzia edo Ekonomia nahiz Enpresa Zientzietako lizentzia izatea, edo horien baliokidetzat hartutako beste titulu bat, edo bete beharreko eginkizunerako egokia den antzeko beste tituluren bat izatea, edo, bestela, titulu horietakoren bat eskuratzeko moduan egotea eskaerak aurkezteko

epea bukatzen den egunean. Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

d) Behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea bete behar diren eginkizunetan aritzeko.

e) Dagozkion eginkizun publikoak betetzeko desgaiturik edo bazterturik ez egotea eta administrazio publikoren bateko zerbitzutik berezia ez izatea.

2.2. Igoera txandako izangaiek, aurreko atalean aipatu diren baldintzez gain, honako hauek ere bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, bai, halaber, deialdi honetako 7.3. oinarrian agiriak aurkezteko epeak iraun bitartean eta lanpostuaren jabetza hartzen duten unera arte:

a) Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionario izatea, eta jatorrizko lanpostuan borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.

b) Deialdiko lanpostu hutsen maila berekoa edo beheragokoa izatea.

c) Administrazio publikoetan bost urteko antzinatasun aitortua frogatzea.

2.3. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. oinarrian ezarritako epean eta moduan frogatu beharko dira. Baldintza horiek eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko direla ulertuko da. 2. oinarri honen 1. atalean aipatutako baldintzak, gainera, hautapen prozedurak irauten duen bitartean ere bete beharko dira. Hautapen prozedura izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

**3. oinarria.** Eskaerak.

3.1. Oposizioan parte hartu nahi dutenek behar den eskabidea aurkeztu beharko dute, eredu ofizialaren arabera (deialdiaren I. eranskina), non datu hauek jarriko baitituzte: izen-deiturak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea, helbide elektronikoa eta telefona.

3.2. Eskabidean deialdi honen 2. oinarrian aipatzen diren baldintza guztiak betetzen direla espresuki agerrarazi beharko da, eta horiek frogatu beharko dira deialdiaren 7. oinarrian ezarrita dagoen moduan. Eskabidearekin batera, alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua aurkeztu behar da, II. eranskinean aipatzen den baremari jarraikiz sailkatuak, bai eta haien frogagiriak ere, behar bezala kautotuak.

3.3. Eskabideak Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzenduko zaizkio eta Nafarroako Kontuen Ganberaren erregistro orokorrean aur-

keztuko dira (Iruñeko Ansoleaga kalea 10), egun eta ordu baliodunetan (goizeko 9:00etatik 14:00etara bitarte, astelehenetik ostiralera), hogeita hamar egun naturaleko epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edo Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro bulegotan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako bideetako bat erabiliz.

Eskabidea posta bulego batean aurkezten bada, gutun-azal ireki batean aurkeztuko da, postako langileek data eta zigilua jar diezazkioten, ziurtatu eta Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorrean igorri baino lehen.

Eskabideak Kontuen Ganberaren Erregistro Orokor Elektronikoan ere aurkezten ahalko dira haren egoitza elektronikoaren bidez.

3.4. Desgaitasun aitortua dutenek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskatzea; horretarako, eskabidean adierazi beharko dute, eta aparteko orri batean azaldu beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera desgaitasunen bat dutela frogatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

3.5. Eskabidearen eredia interesdunen eskura egonen da Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorrean, bai eta erakundearen web-orrian ere.

#### 4. oinarria. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratuko da. Onartutako eta baztertutako izen-deiturak agertuko dira zerrenda horretan.

4.2. Interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka, eta, akatsik izan bada, haiek zuzentzen ahalko dituzte, zerrenda Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamar egun balioduneko epearen barruan.

4.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratuko da.

**5. oinarria.** Kalifikazio epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduna.

5.1. Hona hemen oposizio-lehiaketa nahiz deialdiaren 9. oinarrian aipatzen den prestakuntzako eta praktiketako aldia epaituko dituen epaimahaiko kideak:

Epaimahaiburua: Karen Moreno Orduña, Nafarroako Kontuen Ganberako auditorea.

Ordezkoa: José Luis Ezquerro Royo, Nafarroako Kontuen Ganberako legelaria.

Kideak:

– Isabel Brusca Alijarde, Zaragozako Unibertsitateko Kontabilitatearen eta Finantzen Departamentuko Ekonomia Finantzarioaren eta Kontabilitatearen katedraduna.

Ordezkoa: Vicente Condor López, Zaragozako Unibertsitateko Kontabilitatearen eta Finantzen Departamentuko Ekonomia Finantzarioaren eta Kontabilitatearen katedraduna.

– Iñaki Arrizabalaga Rodríguez, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Next Generation Bulegoko zuzendari nagusia.

Ordezkoa: Elena Garde Macías, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Finantza Kontrol Iraunkorrerako eta Auditoretzako Zerbitzuko zuzendaria.

– Ignacio Barquero Solanes, Aragoiko Kontuen Ganberako auditorea.

Ordezkoa: Isabel Linares Muñagorri, Aragoiko Kontuen Ganberako auditorea.

Idazkaria: Gemma Angélica Sánchez Lerma, Nafarroako Kontuen Ganberako legelaria, erakundearen langileen batzordearen ordezkari.

Ordezkoa: José Contreras López, Nafarroako Kontuen Ganberako legelaria, erakundearen langileen batzordearen ordezkari.

5.2. Epaimahaia hautaprobak hasi aitzin osatu beharko da. Ez du eratzerik izanen, ez eta aritzerik ere, bertan mahaikide gehienak ez badira.

5.3. Epaimahaiaren eraketak eta jarduerak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

5.4. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak gehiengo ezabatuko ditu.

5.5. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo dei egiteko

leari horren berri eman, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan abstentziorako aipatzen diren egoeretako batean badaude. Halaber, deialdian parte hartzen dutenek mahaikideak errekusa ditzakete, arrazoi horietako bat gertatzen denean.

5.6. Epaimahaiak aholkulari adituena laguntza izan dezake, proba batzuetan nahiz guztietan laguntzeko. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baino ez dira arituko, eta epaimahaiari haietan baizik ez diote lagunduko.

**6. oinarria.** Oposizio-lehiaketaren nondik-norkoak.

6.1. Oposizio-lehiaketak bi fase izanen ditu: lehiaketaldia lehenbizi, eta oposizioaldia ondoren.

6.2. Lehiaketaldia.

6.2.1. Lehiaketaldian 30 puntu eskuratzen ahalko dira gehienez. Fase hori 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen ebatziko da, eta ez da izanen izangaiek baztertzekoa. Alegatu eta egiaztatutako merezimenduak deialdi honen II. eranskinean ageri den baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak. Honela banatuko dira puntuak:

a) Merezimendu akademikoak, gehienez ere 5 puntu.

b) Auditoretzan esperientzia izatea, gehienez ere 15 puntu.

c) Lanbide esperientzia izatea aurreko atalean baloratu ez diren beste arlo ekonomiko-finantzario batzuetan, gehienez ere 6 puntu.

d) Auditore gisa bete beharreko eginkizunekin zerikusia duten beste merezimendu batzuk, hala nola hizkuntzak jakitea, mintegi eta biltzarretan aurkeztutako txosten eta komunikazioak, aldizkari espezializatueta argitaratutako artikulua, prestakuntza ikastaro espezializatueta parte hartu izana eta abar: gehienez ere 4 puntu.

6.2.2. Alegatutako merezimendu guztiak agiri bidez frogatu beharko dira, izangaiek oposizio-lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkezten duten uenean.

Izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko azalpen eta datu osagarriak eskatzen ahal ditu epaimahaiak.

6.2.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez frogatu ez den merezimendurik, eta ez du adierazitako puntuazioa baino altuagorik emanen merezimenduen atal bakoitzean.

6.2.4. Lehiaketaldiko merezimenduen kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaiak argitara emanen du izangaiek lortutako puntuazioa, Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian, eta hamar egun naturaleko epea ezarriko du interesdunek merezimenduen balorazioaren gainean eskubidekotzat jotzen duten guztia alega dezaten.

6.2.5. Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta epaimahaiak horiek ebatzi ondoren, Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratuko da izangaiek lehiaketaldian lortutako behin betiko puntuazioen zerrenda. Gero oposizioaldian lortzen direnei gehituko zaizkie, horrela oposizio-lehiaketa izandako puntuazio osoa aterako baita.

6.3. Oposizioaldia.

6.3.1. Oposizioaldia 2022ko otsailaren 14tik aurrera hasiko da. Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratuko dira lekua, eguna eta ordua, izangaiek lehiaketaldian lortutako puntuazioekin batera.

6.3.2. Oposizioaldian bi ariketa egingen dira, bata praktikoa eta bestea teorikoa, eta bakoitzaren barnean bi proba egingen dira. Guztira 70 puntu eskuratzen ahalko dira.

6.3.3. Oposizioaldiko ariketa praktikoa egingen da lehenbizi. Gehienez ere 36 puntuko balorazioa emanen zaio, eta bi proba egin beharko dira:

a) Lehenbiziko proba praktikoa: gehienez lau orduz, kontabilitate publiko eta/edo pribatuko kasu bat edo batzuk ebatzi beharko dira, epaimahaiak aurkeztuko dituenak. Proba honetan 18 puntu lortzen ahalko dira gehienez ere, eta gutxienez 9 puntu atera beharko dira proba gainditzeko. Proba hau gai hauei buruzkoa izan daiteke: Kontabilitate Publiko eta Pribatuaren Plan Orokorra, Nafarroako toki kontabilitatearen esparrua, finantzen egoera-orrien azterketa, kontu-bateratzea, finantza eragiketak, estatistika eta kontabilitate analitikoa.

b) Bigarren proba praktikoa: gehienez lau orduz, auditoria publiko eta/edo pribatuko kasu bat edo batzuk ebatzi beharko dira, epaimahaiak aurkeztuko dituenak. Proba honetan 18 puntu lortzen ahalko dira gehienez ere, eta gutxienez 9 puntu atera beharko dira proba gainditzeko. III. eranskineko ("Deialdiko programa") bigarren, hirugarren eta laugarren multzoetako gaietako edozeini buruzkoa izan daiteke proba.

Ariketa praktikoko probak gutun-azal itxien sistemaren bidez zuzenduko dira. Horretarako, izangaiek, ariketa bakoitza bukatutakoan, idatzitako orriak gutun-azal handi batean sartuko dituzte, izenik jarri gabe. Ondoren, norberaren izen-deitu-

rak gutun-azal txiki batean idatziko dituzte, eta gutun-azal hori bestearekin batera aurkeztuko da. Bi gutun-azalak itxita aurkeztu beharko dituzte. Probak bukatutakoan, epaimahaiak zenbaki bera jarriko du bi gutun-azalaren. Ariketak zuzendu ondoren eta plika zenbaki bakoitzari puntuazioa eman ondoren, gutun-azal txikiak jendaurrean irekiko dira, ariketa bakoitzaren egilearen izena zehazteko.

Gutun-azalak jendaurrean irekitzeko eguna Kontuen Ganberaren web-orriaren bidez jakinaraziko zaie oposizioan parte hartzen dutenei.

6.3.4. Ariketa praktikoa bukatuz, ariketa teorikoa egingen da. Guztira, 34 puntuko balorazioa emanen zaio, eta oraingoan ere bi proba egingen dira:

a) Lehenengo proba teorikoa: gehienez 4 orduz, epaimahaiak egingen dituen hamabi galdera erantzun beharko dira idatziz, deialdi honen III. eranskinean dagoen gai-zerrendaren bigarren eta laugarren multzoetako gaiei buruz. Proba horretan 18 puntu lortzen ahal dira gehienez; hau da, 1,5 puntu galdera bakoitzeko. Proba gainditzeko, gutxienez, gehieneko puntuazioaren erdia lortu beharko da; hau da, 9 puntu, eta 12 galderetako 10etan puntuazioa eskuratu.

Lehenengo proba teorikoa bukatuta, izangaiek idatzi dituzten orriak emanen dizkiote epaimahaiari. Gutun-azal itxien sistemaren bidez zuzenduko da ariketa. Proba praktikotarako ezarritako modu berean jokatu da.

b) Bigarren proba teorikoa: gehienez 4 orduz, zozketa bidez aukeraturako bi gai azaldu beharko dira; hots, deialdi honen III. eranskinean dagoen gai-zerrendaren lehenengo multzoko gai bat eta hirugarren multzoko beste bat. Proba honetan 16 puntu lortzen ahal dira, gehienez ere, eta gai bakoitzean gutxienez 4 puntu ateratzen ez dituztenak baztertuko dira.

Bigarren proba teorikoa bukatu ondoren, izangaiek gutun-azal batean sartuko dituzte idatzitako orriak. Interesdunak eta epaimahaiko idazkariak sinatuko dute hegalean eta idazkariak gordeko du. Bidezko denean, eta alfabeto-ordenari jarraituz, izangaiek, epaimahaiaren aurrean, berak sinaturiko gutun-azalak ireki eta ariketa jendaurrean irakurriko du. Gero, epaimahaiak kalifikatuko du. Jendaurreko irakurketa bitartean eta/edo horren ondoren, epaimahaiak ariketari buruzko elkarrizketa bat egiten ahal du izangaiarekin, hamar minutuz gehienez ere.

6.3.5. Kalifikatu ondoren, epaimahaiak jendaurrean paratuko du proba bakoitzaren emaitza Kon-

tuen Ganberaren web-orrian. Iragarki horretan, hurrengo proba non eta noiz egingen den adieraziko da, gutxienez 24 ordu lehenago, ariketa bereko proben kasuan, eta 48 ordu lehenago, berriz, ariketa desberdinen kasuan. Kalifikazio horiek izangaiek lehiaketaldian lortutakoei gehituko zaizkie, oposizio-lehiaketako puntuazio osoa zehazteko.

6.3.6. Proba bakoitzerako dei bakarra egingen da, eta izangaiek nortasun agiri nazionala, pasaporte, gidabaimena edo epaimahaiak askiesten duen beste nortasun agiri bat aldean dutela agertu beharko dute ariketak egitera. Ariketak egitera azaltzen ez direnak edo haien nortasuna egiaztatzen ez dutenak oposiziotik baztertuko dira.

6.3.7. Oposizioaldiko probak egiteko orduan, minusbaliotasunak izanik halaxe eskatzen dutenek denbora eta baliabide aldetik zilegi diren egokitzapenak izanen dituzte, eskabidean azaltzen dutenaren arabera.

**7. oinarria.** Probak gainditzen dituztenen zerrenda, izendapen proposamena eta agirien aurkezpena.

7.1. Oposizioaldia bukatu ondoren, epaimahaiak proba gainditzen duten izangaien zerrenda argitaratuko du Nafarroako Kontuen Ganberako web-orrian, txandaren arabera eta, horietako bakoitzean, lortutako puntuazioaren arabera.

7.2. Epaimahaiak puntuaziorik altuenak lortzen dituzten izangaiek izendatzeko proposamena igorriko Kontuen Ganberako lehendakariari, oposizio-lehiaketako aktekin eta gainerako agiriekin batera. Proposamen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7.3. Proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturalen barruan, proposaturako izangaiek honako agiriok aurkeztu beharko dituzte Nafarroako Kontuen Ganberan:

A) Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioak ez diren izangaiek:

a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia konpultsatua, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Deialdiaren 2.c) oinarrian eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.

c) Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak emandako txostena, frogatzeko ez duela gaixotasun edo akats fisiko edo psikorik karguan aritzea eragotziko liokeenik.

Desgaitasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko dute, balorazio eta orientazio talde eskudunek emana.

d) Eginkizun publikoetarako ezgaitua edo gabetua ez izatearen eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia ez izanaren zinpeko aitortpena.

e) Zinpeko aitortpena edo promesa, adierazten duena Nafarroako foru araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

Nafarroako Kontuen Ganberakoa ez den Nafarroako beste administrazio publikoren bateko funtzionarioek edo langile finkoek, gainera, aurreko administrazioeko espediente pertsonalean ageri diren inguruabar eta aurrekari guztiak frogatzen dituen ziurtagiria beharko dute aurkeztu, hots, sarrerari, antzinasunari, mailari, egoera administrazioari eta abarrei buruzkoa.

B) Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioak diren izangaiek:

a) Deialdiaren 2.c) oinarrian eskatzen den titularen fotokopia konpultsatua, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.

Minusbaliotasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko dute, balorazio eta orientazio talde eskudunek emana.

7.4. Aipatu epearen barrunean, eta aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, arestiko agiriak aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira izendatu, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, beren eskaeraren faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzukizuna galarazi gabe.

7.5. Aurreko atalean azaldutakoa gertatuz gero, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak oposizioa gainditzten dutenen zerrendan (7.1 atalean aipatzen den hartan) ondotik heldu den pertsonarekin beteko du utzitako hutsunea, eta harekin ere aurreko ataletan adierazi bezala jokatuko da.

## 8. oinarria. Behin-behineko izendapena.

8.1. Goiko 7.3 puntuan aipatzen diren agiriak aurkeztu ondoren, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak, ebazpen baten bidez, proposaturiko izangaien behin-behineko izendapen propo-

samena egingen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta web-orrian argitaratuko da.

8.2. Izendatzen diren pertsonak hilabeteko epean jabetu beharko dute lanpostuaz, behin-behineko izendapena jakinarazten zaienetik hasita.

8.3. Aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, deialdi honetako 7.3 oinarrian eskatzen diren agiriak aurkezten ez badituzte edo aipaturiko hilabeteko epean jabetza hartzen ez badute, izendatutako pertsonak oposizio-lehiaketako jarduketatik sortutako eskubideei uko egiten dietela ulertuko da, eta hala izanik, aurreko oinarrian adierazitako zerrendan hurrengo dagoen pertsonarekin beteko da lanpostua.

## 9. oinarria. Prestakuntzako eta praktiketako aldia.

9.1. Proposatu eta behin-behineko izendatzen diren pertsonak urtebeteko praktikaldia gainditu beharko dute auditore izateko behin betiko izendapena lortu aurretik, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko Foru Legearen 29. artikuluan xedatutakoarekin bat.

9.2. Praktikaldia hasiko da izendatutako izangaiek lanpostuaren jabetza behin-behineko hartzenean, hilabeteko epearen barruan egingen baita, behin-behineko izendapena jakinarazten den egunetik hasita.

9.3. Praktikaldia bitartean, izendatutako pertsonak Kontuen Ganberako gainerako auditoreei dagozkien eskubide eta eginbehar berberak izanen dituzte. Praktiketara dauden auditoreek tutore bat izanen dute, zeina Nafarroako Kontuen Ganberaren plantillan lanpostu finkoa duen auditore bat izanen baita. Tutoreak aholku emanen die praktikaldian egin beharreko zeregin guztietan, funtsean auditore lanpostuari dagozkion eginkizunak izanen baitira.

9.4. Behin praktikaldia bukatu, tutoreak aprobetxamenduari buruzko txosten bat egingen du, deialdi honen IV. eranskinean adierazitako irizpideen arabera. Txosten hori interesdunei jakinaraziko zaie, eta interesdunek egokiak iruditzen zaizkion alegazioak aurkezten ahalko dituzte, hamar eguneko epean.

9.5. Behin aurreko ataletan aurreikusitako jarduketak bukatu, deialdi honen 5. oinarrian ezarritako kalifikazio-epaimahaiko buruak epaimahaikideak deituko ditu praktikaldiaren aprobetxamendua baloratzeko, tutoreak egindako txostenaren eta aurkeztutako alegazioen edukiaren arabera. Epaimahaia "gai" edo "ez gai"

kalifikazioa emanen du. Emandako kalifikazioa txosten zehatz batean arrazoitu beharko da, eta txosten hori azken kalifikazioaren aktari atxikiko zaio.

Kalifikazio-epaimahaiak izendapen proposamen bat igorriko dio Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari, izangai bakoitzak lortutako kalifikazioa adierazita; horrekin batera, aktak, ziurtagiriak eta epaimahaiaren jardunean sortutako gainerako agiriak ere igorriko dizkio.

**10. oinarria.** Auditore gisa behin betiko izendatzea eta lanpostuaren jabetza hartzea.

10.1. Aurreko oinarrian aipatzen den praktikaldia bukatu, izangaiak gai kalifikazioa lortuz gero, Kontuen Ganberako lehendakariak behin betiko izendatuko ditu auditore. Izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta web orrian argitaratuko da.

10.2. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean, izendatutako pertsonak karguaz jabetu beharko dute behin betiko.

10.3. Izangaiaren bat epe horretan lanpostuaz jabetzen ez bada, ulertuko da oposizio-lehiaketaren ondoriozko eskubideei uko egiten diela. Kasu horretan, dei eginen zaio deialdi honen 7. oinarrian aipatzen den proposamenean hurrengo dagoen izangaiari.

Behin deialdi hori eginik, 8. oinarrian ezarritako prozedurari ekinen zaio izangai berria behin-behineko izendatzeko, eta 9. oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio prestakuntzako eta praktiketako aldiaren aprobeitxamendua eta eginkizun-betetzea baloratzeari dagokienez. 10. oinarri hau bera aplikagarria izanen da auditore gisa behin betiko izendatzeari eta lanpostuaren behin betiko jabetza hartzeari dagokienez.

10.4. Aurreko atalean adierazitako modu berean jokatu da behin-behineko izendatutako izangaiak praktikaldian gai kalifikazioa lortzen ez badu.

**11. oinarria.** Aurkeztutako agiriak.

11.1. Izangaiak aurkezten dituzten agiriak berreskuratzen ahalko dituzte, halaxe berariaz eskatuz gero, betiere erreklamazio edo errekursorik jartzen ez bada. Agiriak berreskuratzeko eskaera hiru hilabeteko epean aurkezten ahalko da. Epe hori hasiko da kontatzen behin betiko izendapenaren ebazpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetetara.

11.2. Aurreko atalean ezarritako epea bukatzen bada agiriak hartzeko eskaerarik egin gabe, izangaiak agiriak berreskuratzeari uko egin diola ulertuko da, eta, beraz, horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsitu egingen dira.

11.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkezten baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Halakoetan, agiriak berreskuratzen ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

**12. oinarria.** Errekurtsuak.

Honako errekurtsu hauetako bat aurkez daiteke deialdiaren, haren oinarrien, izendatzeko erabakien eta Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak deialdia dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka:

a) Aukerako berraztertze errekurtsua, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Deialdi hau aurrera eramateko epaimahaiak hartzen dituen gainerako egintzen aurka gora jartzeko errekurtsua aurkezten ahalko da, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

## I. ERANSKINA

### Eskabidearen eredia

Izen-deiturak: ....., adina: .....,  
NANa: ....., helbidea (herria): .....,  
kalea: ....., zenbakia: ....., solairua: ....., posta kodea:  
....., telefonoa: ....., behar den begirunearekin,

#### ADIERAZTEN DUT:

1.- Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak 2021eko .....aren .....an emandako ebazpenaren berri izan dut, zeinaren bidez deialdi bat onetsi baita auditoreen bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko, eta deialdi horretan parte hartu nahi dut.

2.- Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditut eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

3.- Txanda irekian parte hartu nahi dut   
Txanda murriztuan parte hartu nahi dut

4.- a) Ez daukat inongo minusbaliotasunik

b) Minusbaliotasuna dut  eta, horrenbestez, azaltzen den egokitzapena eskatzen dut, adierazten ditudan arrazoiengatik (beste orri batean, azalduko dira minusbaliotasunaren arrazoiak eta eskatutako egokitzapenak).

Adierazitakoaren ondorioz,

#### ESKATZEN DUT:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea. Honekin batera, deialdian eskatutako dokumentazioa eta alegatzen ditudan merezimenduen egiaztagiriak aurkezten ditut.

Iruñean, 2021eko .....aren .....(e)(a)n.



## II. ERANSKINA

### Merezimenduak baloratzeko baremoa

a) *Merezimendu akademikoak, gehienez ere 5 puntu.*

Atal honetan alderdi hauek baloratuko dira:

Doktore gradua, bi puntu.

Unibertsitateko beste titulu ofizial batzuk, auditore lanpostuan aritzeko alegatutakoaz gainera, baldin eta lotura badute auditore lanpostuaren eginkizunekin: puntu bat emanen da erdi mailako tituluengatik eta 2 puntu goi mailako tituluengatik.

Kontuen auditoretzari buruzko unibertsitateko master ofizialak, bi puntu.

Unibertsitateko titulu berekiak edo espezialista tituluak auditore lanpostuan bete beharreko eginkizunekin lotutako arloetan, puntu bat.

2 punturekin baloratuko da Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean sartzeko prestakuntza ikastaro teorikoa gainditu izana, Kontabilitaterako eta Kontuen Auditoretzarako Institutuak homologatua badago.

Ez dira meritutzat hartuko maila goragoko titulu akademikoak eskuratzeko ezinbestekoak direnak.

b) *Auditoretzan esperientzia izatea, gehienez ere 15 puntu.*

Atal honetan, 0,80 puntu emanen dira auditoria publikoaren arloan metatutako esperientzia-urte oso bakoitzeko, eta 0,60 puntu auditoria pribatuaren arloan metatutako esperientzia-urte oso bakoitzeko.

Entitate publiko batean lan egin bada, organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztuko da hori frogatzeko.

Norberaren kontura lan egin bada, egindako lan denboraldiko lizentzia fiskala aurkeztuko da hori frogatzeko, egindako lanen frogagiriekin batera.

Besteren kontura lan egin bada, esparru pribatuan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak lan bizitzari buruz emandako ziurtagiria aurkeztuko da, lan kontratuaren kopiarekin batera, eta egindako lanei eta eginkizunei buruz enpresak emandako ziurtagiria erantsiko da.

c) *Lanbide esperientzia izatea aurreko atalean baloratu ez diren beste arlo ekonomiko-finantzario batzuetan, gehienez ere 6 puntu.*

Atal honetan, kudeaketa ekonomiko-finantzarioarekin zerikusia duten lanpostuetan egindako lana baloratuko da, hala sektore publikoan nola

pribatuan: 0,40 puntu urte bakoitzeko, betiere lanpostu horietan aritzeko, gutxienez, unibertsitateko gradudun titulua edo baliokidea eskatu baldin bada.

Entitate publiko batean lan egin bada, organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztuko da hori frogatzeko.

Norberaren kontura lan egin bada, egindako lan denboraldiko lizentzia fiskala aurkeztuko da hori frogatzeko, egindako lanen frogagiriekin batera.

Besteren kontura lan egin bada, esparru pribatuan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak lan bizitzari buruz emandako ziurtagiria aurkeztuko da, lan kontratuaren kopiarekin batera, eta egindako lanei eta eginkizunei buruz enpresak emandako ziurtagiria erantsiko da.

d) *Auditore gisa bete beharreko eginkizunekin zerikusia duten beste merezimendu batzuk, hala nola Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea, euskaraz jakitea, prestakuntza ikastaro espezializatuetan parte hartu izana, mintegi eta biltzarretan aurkeztutako artikulua, txosten edo komunikazioak eta abar: gehienez ere 4 puntu.*

Atal honetan, euskara eta Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea honela baloratuko da: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 maila izanez gero, 0,50 puntu jasoko dira; A2 maila izanez gero, 1,00 puntu; B1 izanez gero, 1,50 puntu; B2 izanez gero, 2,00 puntu; eta C1 edo baliokidea izanez gero, 2,50 puntu.

Ondorio horietarako, kontuan hartuko dira Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 Ebazpenean hainbat tituluren eta egiaztagiriren artean ezarritako baliozkotzeak. Ebazpen hori 2010eko 117. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, irailaren 27koan, eta, gero, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 22ko 43/2020 Ebazpenaren bidez aldatu zen.

Atal honetan, halaber, ekintza bakoitzeko 0,10 puntu emanez baloratuko da mintegi eta biltzarretan txostenak edo hitzaldiak aurkeztu izana, bai eta aldizkari espezializatuetan artikulua aurkeztu izana ere, auditore gisa egin beharreko lanekin zerikusia baldin badute.

Auditore lanpostuarekin zerikusia duten gaiei buruzko liburuak argitaratu izana gehienez 2 punturekin baloratuko da, eta lanpostu horretako eginkizunekin zerikusia duten argitalpenekin lortutako sari eta gorapamenengatik puntu bat emanen da gehienez.

Epaimahaiak atal honetan aintzat hartzen ahalko du auditore lanpostuaren berriazko eginkizunekin zerikusia duten lanbide espezializazioko ikastaroak egin izana azken lau urteetan, 50 ordu-tik gorako ikastaroak izan badira eta aprobe-txamendu agiria lortu bada. 50 ikastorduko 0,20 puntu emanen dira.

#### **Baremoko puntuak aplikatzeko oharrak:**

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

2. Lanaldi partzialean egindako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

3. Ez dira baloratuko deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoan egindako zerbitzuak edo eskuratutako merezimenduak.

4. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu bada, aldi horietako zerbitzuak kontatzeari begira, egoera horietan sartzean zeukan lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira. Funtzionario behin betikoz izendatu baino lehen egindako praktikaldiak ere osorik baloratuko dira.

### **III. ERANSKINA** **Deialdiko programa**

#### **Lehen multzoko gaiak. Ekonomia eta Ogasun Publikoa.**

1. gaia. Ekonomia Publikoaren justifikazioa. Oreka orokorraren eredu teorikoa. Ekonomiako esku-hartze publikoaren oinarriak: Estatuaren eginkizun fiskalak: esleitzea, banatzea eta egonkortzea. Ogasun publikoaren gaineko teoria positiboa eta arau-emilea. Sektore publikoa: sarrerak eta gastuak. Ekonomia publikoa. Ogasun publikoaren gaineko teoriaren egungo gaiak.

2. gaia. Sektore publikoaren tamaina: gastuak eta diru-sarrerak. Sektore publikoa, ekoizle eta kontsumitzaile gisa. Administrazio publikoak, errenta banatzaile gisa. Sektore publikoa Nafarroan.

3. gaia. Ongizatearen ekonomiaren oinarriak. Eraginkortasun ekonomikoa kontsumoan eta ekoizpenean, eta eraginkortasun globala. Esku-hartze publikoa eraginkortasuna lortzeko: Merkatuaren akatsak. Ondasun publikoak. Esternalitateak. Lehentasunezko ondasunak. Esku-hartze publiko motak efizientzia lortzeko. Ondasun pribatuen hornidura publikoa.

4. gaia. Ondasun publikoen definizioa. Ondasun publiko puruak eta ez-puruak. Ondasun publi-

koen hornidura eraginkorra: ondasun publikoen hornidura pribatuaren eraginkortasunik eza. Ondasun publikoen hornidura publikoa. Finantzaketa-prozeduraren eraginak ondasun publikoen hornidura ezin hobearen gainean.

5. gaia. Esternalizazioa. Kanpo-eraginen kontzeptua eta izaera. Esternalitate motak: kanpo ekonomiak eta desekonomiak. Konponbide pribatuak: merkatuan esternalitateak barneratzea jabetza eskubideak esleituz eta negoziatuz; bat-egiteak; konbentzio sozialak. Konponbide publikoak. Esternalitate positiboak. Zuzentzeko prozeduren balorazioa. Eraginak efizientiaren eta ekitatearen gainean.

6. gaia. Hautapen soziala. Hautapen kolektiboaren problema. Hautapen kolektiboaren arauak. Demokrazia zuzena. Gehiengo bozketaren bidezko hautapena. Gehiengo bozketaren oreka. Demokrazia ordezkatzaila. Gizarte-ongizatearen eginkizunen bidezko hautapena.

7. gaia. Sektore publikoaren funtzionamendu ereduak. Antolaketa arazoak sektore publikoan. Sektore publikoaren akatsak. Kudeaketa publikoa eta efizientzia: antolaketa ereduak sektore publikoan. Instituzioen diseinuak. Instituzio publikoetako pizgarri sistema baten printzipioak. Pizgarrien mekanismoen balorazioa.

8. gaia. Proiektu publikoen ebaluazio ekonomikoa. Kostuaren eta irabaziaren azterketa: kostuaren eta irabaziaren azterketaren oinarri ekonomikoak: efizientiaren irizpidea. Kostuaren eta onuraren azterketa praktikan. Kostuaren eta onuraren azterketaren etapak: aztergaiaren definizioa, azterketaren ikuspegia eta alternatiben hautaketa. Kostuen eta onuren identifikazioa, neurria eta balorazioa. Denbora kontuan hartzea kostuei eta onurei dagokienez: deskontuaren tasa hautatzea. Arriskua eta ziurtasun eza kontuan hartzea. Kontuan hartze distributiboak. Erabakitzearen arauak. Kostuaren eta onuraren azterketaren mugak.

9. gaia. Osasuna lehentasunezko ondasun gisa. Osasunaren hornidura publikoa: finantzabidea eta produkzioa; produkzio publikoa eta pribatua; Osasunaren Sistema Nazionala; osasun arloko erreformak. Hezkuntza lehentasunezko ondasun gisa: Espainiako hezkuntza sistema.

10. gaia. Espainiako Estatuaren prestazio ekonomikoen programak. Errentak ordeztzeko programen justifikazioa. Gizarte Segurantzaren pentsioen sistema eta haren erreforma. Langabezia-asegurua. Pobreziaren aurkako programak. Mendekotasunari erantzutea.

11. gaia. Diru-sarrera publikoak. Diru-sarrera publikoak sailkatzeko irizpideak. Zerga: kontzeptua eta hura osatzen duten elementuak. Zergapetze mota nagusiak.

12. gaia. Zergapetzearen printzipioak. Onuraren eta ordaintzeko gaitasunaren printzipioak. Zergapetzearen kostuak. Iruzur fiskala: kontzeptua, eraginak eta ezaugarri baldintzatzaileak.

13. gaia. Prezioak, tasak eta kontribuzio bereziak. Tasak: kontzeptua eta sailkapena. Kontribuzio bereziak. Enpresa publikoa eta prezioen finkapen publikoa.

14. gaia. Enpresa publikoa: kontzeptua eta helburuak. Haren kudeaketaren oinarritzko ezaugarriak. Enpresa publikoaren kontrol sistema. Finantza bideak. Egitura finantzarioa. Balorazio metodoak.

15. gaia. Aurrekontua: kontzeptua eta alderdi nagusiak. Aurrekontuen zikloa. Aurrekontu ereduaren gaur egungo egoera eta aurreikuspenak. Aurrekontua helburuen arabera finkatzea.

16. gaia. Aurrekontua prestatzea eta exekutatzea. Aurrekontuaren gaineko erabakiak gastuei eta diru-sarrerei buruz: aurrekontuen egitura. Aurrekontua eta planifikazio eta programazio sistemak. Aurrekontua exekutatzeke eta kontrolatzeko prozesua.

17. gaia. Aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna: araubide juridikoa. Aplikazio eremua eta printzipio orokorrak. Arau fiskalen instrumentazioa eta helburuak finkatzea. Prebentzio, zuzenketa eta zigor neurriak. Gardentasun printzipioa. Aurrekontuen kudeaketa.

18. gaia. Defizit publikoa: definizioa, motak eta eragina jarduera ekonomikoaren gainean. Konstituzioaren printzipioak gastu publikoaren arloan eta Konstituzioaren nozioa aurrekontuaren egonkortasunari buruz. Egonkortasunerako eta Hazkunderako Ituna, gaur egun. Defizit publikoaren kalkulua Gehiegizko Defizitaren Protokoloaren ondorioetarako.

19. gaia. Zor publikoa: kontzeptua, motak eta eragin ekonomikoak; zor publikoaren zama. Sektore publikoaren zorpetzearen araubide juridikoa eta Nafarroako Foru Komunitatearen abalak. Zorra Gehiegizko Defizitaren Protokoloaren arabera.

20. gaia. Oinarritzko magnitude agregatuak: nazio produktua, kontsumoa eta inbertsioa, nazio gastua. Nazio produktu gordina eta garbia. Nazio errenta eta errenta erabilgarria. Errentaren eta

produktuaren fluxu zirkularra. Nazio errentaren kontabilitatea ekonomia ireki batean.

21. gaia. Espainiako Finantza Sistemaren egitura instituzionala. Agintaritzaren monetarioa. Europako Banku Zentrala, banku zentralen sistema europarra eta Espainiako Bankua. Moneta politika: tresnak eta ondorioak ekonomian.

22. gaia. Moneta eta kapital merkatu finantzarioak. Deribatuen eta dibisen merkatuak.

### **Bigarren multzoko gaiak. Auditoretza eta kontu-auzitegiak.**

1. gaia. Auditoretza publikoa: kontzeptua eta ezaugarriak. Auditoretza publiko motak helburuaren arabera. Auditoretza edo fiskalizazio publikoa egiteaz arduratzen direnak. Eremu pribatuko auditoretzaren aipamena.

2. gaia. Sektore Publikoa fiskalizatzeko oinarritzko printzipioak: ISSAI-ES 100.

3. gaia. Finantzen fiskalizazioaren edo auditoretzaren oinarritzko printzipioak: ISSAI-ES 200.

4. gaia. Fiskalizazio operatiboaren oinarritzko printzipioak: ISSAI-ES 300.

5. gaia. Betetzeko fiskalizazioaren oinarritzko printzipioak: ISSAI-ES 400.

6. gaia. Auditoretza pribatuaren oinarritzko printzipioak, NIA-ES arauetan jasotakoak.

7. gaia. Auditoretza publikoaren planifikazioa. Auditoretza edo fiskalizazio lanaren faseak. Planifikazio jarduerak: auditoretzaren estrategia orokorra eta auditoretzaren plan orokorra. Lan programak, auditoretzaren prozedurak eta lan paperak. ISSAI, GPF-OCEX eta NIA-ES-SP arauak arlo hauetan duten intzidentzia.

8. gaia. Ebidentzia: kontzeptua eta izaera, auditoretzan ebidentziak lortzeko frogak eta egiaztatze teknikak. Materialtasuna edo garrantzi erlatiboa: kontzeptua, faktore kualitatiboak eta kuantitatiboak. Auditoretzako arriskua: kontzeptua eta osagaiak. ISSAI eta NIA-ES-SP arauak arlo hauetan duten intzidentzia.

9. gaia. Laginketa auditoretza publikoan: laginketa estatistikoaren eta ez-estatistikoaren teknikak. ISSAI eta NIA-ES-ESP arauak arlo honetan duten intzidentzia.

10. gaia. Barneko kontrola: kontzeptua eta motak, auditoreak barneko kontrola egiaztatzen eta ebaluatzea. ISSAI, GPF-OCEX eta NIA-ES-SP arauak arlo honetan duten intzidentzia.

11. gaia. Auditorearen erantzukizunak iruzurra-  
ren kontrako fiskalizazioan. ISSAI, GPF-OCEX eta  
NIA-ES-SP arauak arlo honetan duten intziden-  
tzia.

12. gaia. Auditoretza ingurune informatikoetan:  
printzipioak, metodologia eta berrikusteko tekni-  
kak. Sistema informatizatuen barneko kontrola eta  
segurtasuna. ISSAI eta GPF-OCEX arauak arlo  
honetan duten intzidentzia.

13. gaia. Zerga bidezko diru-sarreraren auditore-  
tza. ISSAI eta GPF-OCEX arauak arlo honetan  
duten intzidentzia.

14. gaia. Zergaz kanpoko diru-sarreraren  
auditoretza. ISSAI eta GPF-OCEX arauak arlo  
honetan duten intzidentzia.

15. gaia. Langileria gastuen auditoretza. ISSAI  
eta GPF-OCEX arauak arlo honetan duten in-  
tzidentzia.

16. gaia. Ondasun arrunt eta zerbitzuetako  
gastuen auditoretza. ISSAI eta GPF-OCEX arauak  
arlo honetan duten intzidentzia.

17. gaia. Transferentzia gastuen, dirulaguntzen  
eta laguntza publikoen auditoretza. ISSAI eta  
GPF-OCEX arauak arlo hauetan duten intziden-  
tzia.

18. gaia. Inbertsioen auditoretza. ISSAI eta  
GPF-OCEX arauak arlo honetan duten intziden-  
tzia.

19. gaia. Ibilgetu ez-finantzarioaren auditoretza  
eta inbertsio finantzarioarena. ISSAI eta GPF-  
OCEX arauak arlo hauetan duten intzidentzia.

20. gaia. Diruzaintzaren auditoretza. ISSAI eta  
GPF-OCEX arauak arlo honetan duten intziden-  
tzia.

21. gaia. Izakinen, zordunen eta kobratu beha-  
rreko beste kontu batzuen, hartzekodunen eta  
ordaindu beharreko beste kontu batzuen auditore-  
tzak. ISSAI eta GPF-OCEX arauak arlo hauetan  
duten intzidentzia.

22. gaia. Ondare garbiaren auditoretza. ISSAI  
eta GPF-OCEX arauak arlo honetan duten in-  
tzidentzia.

23. gaia. Zorpetzearen auditoretza. ISSAI eta  
GPF-OCEX arauak arlo honetan duten intziden-  
tzia.

24. gaia. Emandako abal publikoen auditore-  
tza. ISSAI eta GPF-OCEX arauak arlo honetan  
duten intzidentzia.

25. gaia. Aurrekontuko eta aurrekontuz kanpo-  
ko eragiketen auditoretza. ISSAI eta GPF-OCEX  
arauak arlo hauetan duten intzidentzia.

26. gaia. Auditoretza enpresa publikoetan, fun-  
dazio publikoetan eta beste entitate publiko ba-  
tzuetan. ISSAI eta GPF-OCEX arauak arlo haue-  
tan duten intzidentzia.

27. gaia. Auditoretza publikoaren txostenak:  
egitura eta iritzi motak. Salbuespenen izaera: iris-  
menaren mugak eta kontabilitatearen printzipioak  
eta arauak ez betetzea. Txostenaren publikitatea.  
Gomendioak. ISSAI eta GPF-OCEX arauak arlo  
hauetan duten intzidentzia.

28. gaia. Auditoretza-txostenak eremu pribatu-  
an. Ohar orokorrak eta edukia. Iritzi motak.

29. gaia. Goi mailako entitate fiskalizatzaileak  
edo kanpoko kontrolerako erakunde publikoak:  
ideia orokorrak eta antolaketa-ereduak. Haien  
kontrol-ekintzaren eremua. Parlamentuekiko eta  
gubernuekiko harremanak. Espainian duen konfi-  
gurazioa.

30. gaia. Europako Kontuen Auzitegia: izaera,  
antolaketa eta eginkizunak.

31. gaia. Kontuen Auzitegiaren osaera, bere  
lege organikoaren eta funtzionamendu legearen  
arabera: izaera, antolaketa eta eginkizunak.

32. gaia. Nafarroako Kontuen Ganbera: jatorria  
eta bilakaera. Gaur egungo araubidea. Eginkizu-  
nak eta antolaketa. Haren funtzionamendurako  
oinarrizko arauak.

### **Hirugarren multzoko gaiak. Zuzenbide Publikoa.**

1. gaia. Europako Erkidegoko zuzenbidea:  
kontzeptua, ezaugarriak. Europako Erkidegoko  
zuzenbidearen iturriak. Jatorrizko zuzenbidea.  
Zuzenbide eratorria: erregelamendua, zuzenta-  
rauak eta erabakiak. Europar Batasunaren Fun-  
tzionamenduari buruzko Tratatuak. Europako Erki-  
degoko zuzenbidearen eragina Foru  
Komunitatean.

2. gaia. Europa eraikitze prozesua. Europar  
Batasuna. Europar Batasuneko erakunde-sistema:  
Kontseilu Europarra, Europar Batasuneko Kon-  
tseilua, Europako Batzordea, Europako Parlamen-  
tua, Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, Euro-  
pako Kontuen Auzitegia eta Europako Banku  
Zentrala.

3. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa (1):  
ezaugarriak eta egitura. Atariko titulua. Koroa.  
Gorte Nagusiak. Gobernua eta Administrazioa.  
Ekonomia eta Ogasuna. Botere judiziala.

4. gaia—Espainiako 1978ko Konstituzioa (2): Estatuaren lurralde antolaketa eta eskumenen banaketa. Konstituzio Auzitegia.

5. gaia. Nafarroako Foru Eraentza. Nafarroa, Gaztelari erantsi aurretik eta ondoren. 1841eko Lege Itundua: aurrekariak, izaera juridikoa eta edukia. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa: izaera, egitura eta edukia.

6. gaia. Nafarroako Parlamentua: aurrekariak. Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua. Parlamentuaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua. Eginkizunak: bereziki legegintzako eginkizuna eta legegintza prozeduraren oinarriko alderdiak. Parlamentarien eskubideak eta betebeharrak. Parlamentuko taldeak. Parlamentuko kontrol tresnak. Parlamentuaren eta Kontuen Ganberaren arteko harremanak.

7. gaia. Nafarroako Gobernuak: aurrekariak. Jarduteko oinarriko printzipioak, Hobekuntzan eta foru lege arautzailean ezarritakoak. Antolaketa, eginkizunak eta eskumenak. Nafarroako Gobernuak lehendakaria. Gobernuak kideak. Nafarroako Gobernuaren araugintzako ahalmena. Erantzukizun politikoa eta Parlamentuaren kontrola. Bateriaezintasunen araubidea.

8. gaia. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren araubide juridikoa. Jarduketaren oinarri orokorrak. Antolaketa eta funtzionamendua. Administrazio prozeduraren oinarriko alderdiak. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ondare-erantzukizuna. Erakunde publikoak eta Administrazioaren menpeko beste entitate batzuk.

9. gaia. Foru Komunitateko beste erakunde batzuk: Nafarroako Kontseilua. Foru Komunitateko Arartekoa. Erakunde horien araubidea, antolaketa eta eginkizunak. Nafarroako Administrazio Auzitegia: aurrekariak, antolaketa eta eskumenak.

10. gaia. Administrazio zuzenbidearen iturbiak: Konstituzioa. Legea. Lege dekretuak. Legegintzarako eskuordetzea. Erregelamendua. Legearen eta erregelamenduaren arteko loturak. Erregelamendu-ahalmena: titulartasuna, mugak eta kontrola.

11. gaia. Administrazio Publikoa eta zuzenbidea. Administrazio ahalmenak. Legezketasunaren printzipioa. Administrazioaren autotutoretzarako ahalmena. Zerbitzu publikoaren kontzeptua. Zerbitzu publikoa kudeatzeko moduak.

12. gaia. Administrazio egintza. Elementuak. Forma. Motak. Administrazio egintzen baliorik eza: erabateko deuseztasuna eta deuseztagarritasuna.

Administrazio egintza irregularrak. Baliozkotzea, gordetzea eta bihurtzea. Administrazio egintzak ofizioz berraztertzea eta errebotatzea.

13. gaia. Administrazio egintzen eraginkortasuna. Administrazio egintzen jakinarazpena eta argitalpena. Administrazio egintzen ondorioen eten-dura. Nahitaezko betearazpena eta premiamendu bidearen aipamen berezia. Administrazioaren isiltasuna.

14. gaia. Administrazio prozedura erkidea: kontzeptua, printzipioak eta motak. Alderdiak prozeduran. Hasiera, antolamendua eta instrukzioa. Prozeduraren bukaera: moduak. Administrazio elektronikoa: betebeharrak eta tresnak. Egoitza elektronikoa eta web ataria. Dokumentuen kudeaketa. Prozedura elektronikoa.

15. gaia—Administrazio errekursoak: kontzeptua eta motak. Administrazio errekursoak tramitatzeko eta ebazteko prozedura. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa. Hedadura eta mugak. Prozeduraren alderdiak. Epaia. Errekursoak.

16. gaia. Sektore publiko instituzionala. Erakunde publikoak: tipologia eta araubide juridikoa. Zuzenbide pribatuko entitateak: tipologia eta araubide juridikoa. Bestelako entitate motak.

17. gaia. Osasunari buruzko Foru Legea. Osasungintzan aplikatu beharreko oinarriko printzipioak. Herritarren eskubideak. Administrazio publikoen eskumenak eta eginkizunak. Osasun arloko lurralde antolamendua. Nafarroako Osasun Zerbitzua: egitura organikoa, oinarriko araubide juridikoa. Ekimen pribatuarekiko lankidetzak: osasun arloko itunak.

18. gaia. Unibertsitateak. Antolaketaren, funtzionamenduaren eta kudeaketaren arloetan aplikatu beharreko oinarriko araubide juridikoa. Araubide ekonomikoa eta aurrekontuena. Unibertsitateen zerbitzuko langileak. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aipamen berezia.

19. gaia. Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko Foru Legea (1). Oinarriko printzipioak. Legearen egitura eta edukia. Aplikazio eremu objektiboa eta subjektiboa. Adjudikazio botereak. Kontratis-ten gaitasuna eta kaudimena. Baztertzeko arrazoiak. Publizitate arauak eta adjudikazio prozedurak. Kontratazioaren kudeaketa hobetzeko sistemak.

20. gaia. Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko Foru Legea (2). Kontratuak betearaztea. Azpikontratazioa eta kontratuaren lagapena. Prezioen berrikuspena. Kontratuen aldaketak. Erreklamazioak eta lizitazioen kontrolerako beste neurri ba-

tzuk. Kontratuen baliogabetasuna. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bereziak.

21. gaia. Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea (3). Administrazio Publikoek egiten dituzten kontratuen arau berariazkoak. Kontratazio organoak. Kontratazio mahaia. Kontratuak prestatzeko jarduketak. Administrazio kontratuak exekutatzen arau orokorrak. Kontratisten ordainsariak. Administrazio publikoen kontratuak amaitzea.

22. gaia. Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea (4). Administrazio Publikoen kontratuen araubide juridikoa. Obra kontratua. Obrak emateko kontratua. Zerbitzuak emateko kontratua. Hornidura kontratua. Zerbitzu kontratua.

23. gaia. Foru Komunitateko Administrazioaren enpresa publiko instrumentalei egiten zaizkien mandatuaren erregulazioa: helburua, entitate instrumentalaren aitortza eta mandatuaren araubide juridikoa, ekonomikoa eta administratiboa. Publizitatea. Kapital mistoko sozietateekiko kontratuak.

24. gaia. Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen arloetako Itun Sozialei buruzko Foru Legea. Xedea eta printzipioak. Adjudikaziodunek bete beharreko baldintzak. Itunaren xede diren zerbitzuak. Esleitzeko prozedurak eta irizpideak. Hitzarmenen iraupena eta gauzatzea. Ez-betetzea eta iraungitzea. Ebaluazioa.

25. gaia. Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legea: Aurrekariak. Ondasun eta eskubideen sailkapena, eskumenak eta ondarea kudeatzeko irizpideak. Ondasunak eskuratzea, besterentzea eta lagatzea. Nafarroako ondarea administratu, babestu eta defendatzea. Jabari publikoko ondatsunen araubide juridikoa. Jabari pribatuko ondatsunen araubide juridikoa. Enpresen ondare publikoa.

26. gaia. Nafarroako Toki Administrazioa (1). Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen oinarriko alderdiak. Nafarroako toki entitateen antolaketa eta administrazioa. Funtzionamendua. Toki entitateen jarduerak, zerbitzuak eta obrak.

27. gaia. Nafarroako Toki Administrazioa (2). Toki entitateen ondatsunak. Toki ogasunak. Toki entitateen jarduketaren kontrola.

28. gaia. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileak (1). Oinarriko erregulazioa. langile motak. Funtzionario publikoak. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren oinarriko alderdiak. Funtzionario bihurtzea eta funtzionario izateari uztea. Funtzionarioen egoerak. Eskubideak eta betebeharrak. Oinarriko ordainsariak eta osagarriak.

29. gaia. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileak (2). Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutua garatzen duten erregelamenduak. Sartzeko eta lanpostuak betetzeko sistemak. Oporrak, lizentziak eta baimeak. Funtzionario publikoen diziplina araubidea eta bateraezintasun araubidea.

30. gaia. Gizarte Segurantzaren Araubide orokorra. Araubide bereziari buruzko aipamena. Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzko foru legea: arau orokorrak, kotizazioa eta sistemaren prestazioak.

31. gaia. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legea. Legearen xedea eta helburuak. Aplikazio eremua. Gardentasuna. Publizitate aktiboa. Informazio publikorako eskubidea. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko prozedura. Herritarren parte-hartzea eta elkarlana. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari erreklamazioak aurkeztea. Zehapen araubidea. Gardentasunaren Kontseilua: eginkizunak, antolaketa eta funtzionamendua.

32. gaia. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko Foru Legea. Bulegoaren alderdi orokorrak. Eginkizunak. Ikerketa-prozedura. Izapidetze-prozedura. Bulegoaren antolaketa eta funtzionamendua. Zehatzeko ahalmena.

33. gaia. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina (1). Oinarriko printzipioak. Legearen egitura eta edukia. Lurralde antolamenduko eta hirigintzako tresnak.

34. gaia. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina (2). Lurzoru motak eta haien araubide juridikoa. Lurzoruaren balorazioa eta desjabetze araubidea. Planeamendua gauzatzeko tresnak. Lurzoruaren merkatuan gauzatzeko bitartekoak.

35. gaia. Dirulaguntzei buruzko Foru Legea. Aurrekariak eta legearen aplikazio eremua. Dirulaguntza publikoen kudeaketaren arloko printzipio orokorrak. Dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko prozedurak. Dirulaguntzen jarraipena eta kontrola. Dirulaguntzak itzultzea. Dirulaguntza publikoak arautzen dituen estatuko legearen aipamen laburra eta haren aplikazioa Nafarroan.

36. gaia. Datu pertsonalak babestea. Egungo arau-esparrua. Datu pertsonalen babesari buruzko Europako erregelamendua. Definizioak. Datu babesaren printzipioak. Pertsonen eskubideak.

Datuen babesaren arloko figura nagusiak. Datuen babeseke ordezkaria. Datuak Babesteko Agentzia.

**Laugarren multzoko gaiak. Finantza, kontabilitate eta merkataritza arloetako zuzenbidea.**

1. gaia. Finantza zuzenbidea: kontzeptua eta edukia. Aurrekontu zuzenbidea: kontzeptua eta edukia. Ogasun Publikoa Espainiako Konstituzioan.

2. gaia. Gastu publikoa: kontzeptua eta Konstituzioaren printzipioak. Gastu publikoa egiteko prozedura orokorra eta prozedura bereziak. Ordaintzeko prozedura.

3. gaia. Kontabilitate plan orokorra. Kontabilitatearen esparru kontzeptuala, aitortzari eta balorazioari buruzko arauak eta urteko kontuak.

4. gaia. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra. Kontabilitate publikoaren esparru kontzeptuala, aitortzari eta balorazioari buruzko arauak, urteko kontuak eta kudeaketa publikoaren gaineko informazioa.

5. gaia. Kontabilitate publikoaren eta kontabilitate nazionalaren arteko loturak. Kontabilitate doikuntzak nazio kontabilitatearen ikuspegitik. Defizita eta gastuen erregela kalkulatzeko gidaliburuak, autonomia erkidegoetara eta toki entitateetara egokituak. Kontabilitate pribatuaren plan orokorra aplikatzen duten enpresa unitateen defizitaren kalkulua kontabilitate nazionalan.

6. gaia. Kontabilitate analitikoa toki kontabilitatearen ohiko ereduaren instrukzio berrian. Benetako kostua toki kontabilitate publikoaren esparruan.

7. gaia. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea (1). Aplikazio eremua eta Ogasun Publikoaren araubidea. Nafarroako Aurrekontu Orokorra: prestatzea, eztabaidatzea, onestea eta betetzea. Aurrekontuen egitura eta aldaketak.

8. gaia. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea (2). Finantza-eragiketak. Diruzaintza. Kontabilitatea. Erantzukizunak.

9. gaia. Barne kontrola Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean eta Barneko Kontrolako Erregelamendua onesten duen 31/2010 Foru Dekretuan.

10. gaia. Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak. Administrazio publikoaren aurkako delituak: prebarikazioa, desleialtasuna agiriak zaintzerakoan, sekretuak urratzea, funtzionarioen eroskeria, eragimen-trafikoa, bidegabeko eralgitzea, iruzurrak, legez kontrako ordainarazpenak, funtzionario publikoei debekatu-

riko negoziazio eta jarduerak, eta abusuak eginkizunetan aritzean.

11. gaia. Foru Komunitatearen sektore publikoa: Osatzen duten entitaterik garrantzitsuenen deskribapena, tipologia eta definizioa. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa izeneko sozietatea sortzeari buruzko Foru Legea: helburua, irismena eta edukia.

12. gaia. Foru Komunitateko finantza jardueraren kanpo kontrola. Nafarroako Kontuen Ganbera: helburua, haren jarduketa arautzen duten printzipioak, irismena eta haren txostenen edukia. Fiskalizatzeko prozedura.

13. gaia. Kontuen Auzitegiaren kontabilitate arloko jurisdikzioa. Jurisdikzio horren izaera eta ezaugarriak. Kontabilitate arloko erantzukizun kasuak. Erantzukizun mota hori eskatzeko prozedurak. Kontabilitate jurisdikzioaren organoak. Nafarroako Kontuen Ganberaren eskumenak kontabilitateari buruzko erantzukizunaren arloan.

14. gaia. Zerga zuzenbidea: kontzeptua eta edukia. Iturriak. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra: jatorrizko printzipio orokorrak. Tributuen kudeaketa, oinarrizko kontzeptuak eta prozedurak. Diru-bilketa. Tributu ikuskaritza: jarduteko prozedurak eta planak.

15. gaia. Tributuak Nafarroan: kontzeptua eta sailkapena. Zergak eta horien motak. Tasak. Prezio publikoak. Kontribuzio bereziak.

16. gaia. 1841eko Lege Itunduaren xedapenak Ogasunaren arloan. Hitzarmen Ekonomikoaren eta Kontzertu Ekonomikoaren arteko aldeak. Nafarroaren eta estatuaren arteko hitzarmen ekonomikoen historia. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren xedapenak arlo honetan.

17. gaia. 1990eko uztailaren 31ko Hitzarmen Ekonomikoa eta haren eguneratzeak. Xedapen orokorrak. Tributu harmonizazioa. Tributu moten tratamendua eta araubidea. Arbitraje Batzordea. Ekarpen ekonomikoa. Koordinazio Batzordea.

18. gaia. Ekonomia eta Ogasun Departamendua: eginkizunak eta egitura. Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoa: egitura eta eginkizunak. Nafarroako Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa.

19. gaia. Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Legea: printzipioak, egitura eta edukia. Nafarroako Toki Ogasunen baliabideak. Udal zergak.

20. gaia. Nafarroako toki entitateen aurrekontua eta gastu publikoa. Nafarroako Toki Ogasunei

buruzko Foru Legean eta 270/1998 eta 234/2015 foru dekretuetan aurreikusitako araubidea. Toki entitateen diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu egitura. Aurrekontuaren betearazpena eta likidazioa. Diruzaintza toki entitateetan. Kontrola eta fiskalizazioa. Ardurak.

21. gaia. Nafarroako toki entitateen kontabilitate araubidea: 272/1998 eta 273/1998 foru dekretuak.

22. gaia. Nafarroako toki sektore publikoa osatzen duten entitateen deskripzioa eta bakoitzaren oinarritzko ezaugarriak.

23. gaia. Merkataritza-sozietatea: kontzeptua eta motak. Merkataritza-sozietatearen kontratua: oinarritzko elementuak. Eraketaren formalitateak. Eskritura eta erregistroko inskripzioa. Kapital-sozietateen funtsezko ezaugarriak. Estatutu eta egitura mailako aldaketa nagusiak: kapitala handitzea eta gutxitzea, bat-egitea, eraldaketa eta zatitzea. Sozietateak desegitea, likidatzea eta azkentzea.

24. gaia. Konkurtsoa: aurrekontu objektiboa eta subjektiboa. Konkurtsoa deklaratzeko autoa eta haren eraginak. Masa aktiboa eta pasiboa zehaztea. Sailkapena eta ordainketa. Hitzarmena. Bukaera eta kalifikazioa.

25. gaia. Sozietateen urteko kontuak. Motak, urteko kontuak egitea, egiaztatzea, onestea eta gordailutzea. Merkataritza Erregistroa: inskripzioaren kontzeptua, edukia eta esanahia.

26. gaia. Sozietate taldeak. Haien araubide juridikoa. Urteko kontu bateratuak formulatzeko arauak esparru publikoan eta pribatuan. Kontu-bateratzearen subjektuak. Kontu bateratuak egiteko betebeharra. Kontu bateratuak egiteko metodoak. Urteko kontu bateratuak.

27. gaia. Kontuen Auditoretzari buruzko Legea eta haren erregelamendua. Kontabilitaterako eta Kontuen Auditoretzarako Institutua: izaera, antolaketa eta eginkizunak.

#### IV. ERANSKINA

##### **Irizpideak deialdiaren 9. oinarrian aurreikusitako prestakuntzako eta praktiketako aldiaren aprobeitxamendua eta eginkizun-betetzea baloratzeko**

- Bere taldean fiskalizazio bakoitzari esleituak dauden langileen lanak zuzentzea eta koordinatzea; arreta berezia jarriko du irizpide batasuna mantendu dadin, fiskalizazio jarduerak garatzeko orduan.

- Agintzen zaizkion auditoretza lanak planifikatzea, Nafarroako Kontuen Ganberak onetsitako metodologiari, arau teknikoari eta prozedurei jarraituz.

- Egindako planifikazioaren arabera auditoretza prozedurak definitzea eta aplikatzea, emaitzei eusteko nahikoak diren ebidentziak arazoizko epe batean lortze aldera; hori guztia, sektore publikoaren fiskalizazio lanerako aplikagarriak diren arau teknikoetan eta prozeduretan xedatutakoaren arabera.

- Fiskalizatutako zentro eta zerbitzuekin harremanetan egotea, agintzen zaizkien lanak gauzatzeko beharrezkoak diren datuak, txostenak edo aurrekariak biltzeko.

- Ganberako lehendakariari fiskalizazio txostenak eta fiskalizazio lanetan ateratzen dituen ondorioak proposatzea, azter eta onetsi ditzan, Nafarroako Kontuen Ganberan aplikagarriak diren arau teknikoetan eta prozeduretan xedatutakoari jarraituz.

- Txostenak egitea fiskalizatutako ente eta erakundeek aurkezten ahal dituzten alegazioei buruz.

- Lehendakariak edo idazkari nagusiak eskatzen ahal dizkioten txostenak idaztea, haiek zuzendutako fiskalizazio jarduketan ondorioz planteatu daitezkeen gaien gainean.





---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**6/2021 Foru Lege-dekretua, ekainaren 21ekoa, guztiz edo hein batean indargabetzen dituen koronabirusak (COVID-19) eragindako osasun krisiari aurre egiteko ohiz kanpoko neurri batzuk hartu zituzten zenbait foru lege-dekretu.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak onetsi du 6/2021 Foru Lege-dekretua, ekainaren 21ekoa, guztiz edo hein batean indargabetzen dituen koronabirusak (COVID-19) eragindako osasun krisiari aurre egiteko ohiz kanpoko neurri batzuk hartu zituzten zenbait foru lege-dekretu. Aipatu foru lege-dekretua 2021eko ekainaren 22ko 145. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Nafarroako Parlamentuari igorri dio, horrek baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Xedatzea 2021eko ekainaren 24ko Osoko Bilkuran eginen direla ekainaren 21eko 6/2021 Foru Lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa (10-21/DLF-00006).

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipatutako foru lege-dekretua.

Iruñean, 2021eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**6/2021 Foru Lege-dekretua, ekainaren 21ekoa, guztiz edo hein batean indargabetzen dituen koronabirusak (COVID-19) eragindako osasun krisiari aurre egiteko ohiz kanpoko neurri batzuk hartu zituzten zenbait foru lege-dekretu**

Uztailaren 22ko 7/2020 Foru Lege-dekretuaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartu ziren koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

Abuztuaren 17ko 8/2020 Foru Lege-dekretuaren bidez ohiz kanpoko neurriak onetsi ziren Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren kasu positiboan igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko.

Azken arau horren xedapen indargabetzaile bakarrak ia guztiz indargabetu zuen lehenago aipatutako uztailaren 22ko 7/2020 Foru Lege-dekretua.

Bi arauak Estatuko arau hauen babesean eman ziren, zeinak egokiak baitziren une horretako egoera epidemiologikorako:

– 63/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, alarma egoera deklaratu zuena COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko. Deklarazioak Estatuko lurralde osoari eragin zion, hasiera batean hamabost egun naturaleko epean, eta, ondoren, sei luzapen onartu ziren, Diputatuen Kongresuak baimenduta.

– Alarma-egoera luzatu zuen ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretuak, 5. artikuluan, xedatu zuen ezen normaltasun berrirako trantsizio planaren aurreikusitako fase guztiak gaindituz gero, ondoriorik gabe geratuko zirela dagozkion probin-

tzia, uharte edo lurralde-unitateetan alarma-egoeran ezarritako neurriak. Gainera, 6. artikulua-  
ren arabera, autonomia erkidegoak ziren erabaki  
zezaketanak, osasun eta epidemiologia irizpideei  
jarraikiz, beren lurraldeetan 3. fasea gainditu zela  
eta, horrenbestez, "normaltasun berrian" sartuko  
zirela.

– Ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege-dekre-  
tuak, COVID-19ak eragindako osasun krisiari  
aurre egiteko prebentzio, euste eta koordinazio  
neurri urgenteei buruzkoak, prebentzio neurriak  
hartu zituen osasun krisiaren bukaera ofizialki  
deklaratzeko denera arte. Alde horretatik, autono-  
mia erkidegoen eskumenen esku uzten du neu-  
rriak ezartzea.

Nafarroako Gobernuak 2020ko ekainaren 19an  
hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Foru  
Komunitatea normaltasun berrian sartzen zela  
deklaratu zen, eta COVID-19ak eragindako osa-  
sun krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio  
neurri batzuk eman ziren, normaltasun berrirako  
trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

8/2020 Foru Lege-dekretuaren lehenengo  
xedapen gehigarriak xedatzen du arau horren era-  
ginkortasuna egoera epidemiologikoaren arabera-  
koa dela, haren neurriak berariaz ondorioz gabe  
uzten ez diren bitartean.

Horrenbestez, indarrean jarraitzen dute Nafa-  
rroako 2020ko udan zeukan egoera epidemiologi-  
koan hartutako neurri horiek, baina ez datoz bat  
Nafarroako uda honetan daukan egoera epidemio-  
logikoarekin.

Bi egoera epidemiologikoak desberdinak dira,  
nagusiki, COVID-19aren kontrako txertaketa  
aurreratuagatik; 2020ko abenduan jarri zen abian  
eta 2021eko ekainean hasi da lehendabiziko  
dosiak ematen 30 urtetik 39ra bitarte dituztenei.  
Horrek eta pandemian zehar hartutako prebentzio  
neurriek ekarri dute kutsatzeak murriztea, eta,  
batez ere, presio asistentziala apaltzea, pertsona  
zaurgarriek txertaketaren pautak osoa jasoa bai-  
tute. Gauzak horrela, 2021eko ekainaren 18an, 17  
dira ospitaleratuta daudenak (ospitalean berean  
edo etxean) eta beste 9, berriz, ZIUn daudenak.

Ildo horretan, Nafarroako Osasun Publikoaren  
eta Lan Osasunaren Institutuak egin txostenean  
jasotzen da ezen, kontuan harturik zein den egoe-  
ra epidemiologikoa Nafarroako Foru Komunitate-  
an, bai eta, beraz, haren alerta maila ere, gu-  
txinaka malgutzen ari direla zenbait esparrutan  
hartutako neurriak (ostalaritzako ordutegiak, gaue-  
ko aisialdia, ekitaldi jendetsuak, etab.), aldez  
aurretik zehaztutako ibilbide orria betez.

Txosten horrek dio ezen, aintzat harturik  
hemendik gutxira hartu gogo diren malgutze neu-  
rriak, baldin eta egoera epidemiologikoak espero  
bezala eboluzionatzen badu, neurriok kontra egi-  
ten diotela 8/2020 Foru Lege-dekretuan ezarrita-  
koari; beraz, beharrezkoa da arau horren zati bat  
indargabetzea.

Bukatzeko, txostenean proposatzen da inda-  
rrean jarraitzea, bakarrik, eremu publikoan alkoho-  
la kontsumitzea (kale zurruta eta antzekoak)  
mugatzeko duten neurriek (6. artikulua), edo, per-  
sonen arteko 2 metroko gutxieneko tartea erres-  
petatu ezin denean, eremu publikoan edo aire  
zabaleko lekuetan erretzea mugatzeko dutenek.

Bide publikoetan, parke eta plaza publikoetan  
eta bestelako igarobide publikoetan alkohola kon-  
sumitzea debekatu behar da osasun publikoaren  
tzat dakartzan arriskuengatik. Izan ere, horrelako-  
etan, pertsonak kontrolik gabe pilatzen dira eta  
segurtasun neurriak eta urrutze fisikorako neu-  
rriak ez dira betetzen edo erlaxatzen dira.

Indarrean jarraitzen du eremu publikoan edo  
aire zabaleko lekuetan erretzeko debekuak, baldin  
eta pertsonen arteko 2 metroko gutxieneko tartea  
errespetatu ezin bada, birusa aerosolen bidez ku-  
tsatzen delako, eta jarduera horrek berekin dakar,  
noski, maskararik gabe egotea eta kea ahotik  
botatzea.

Bukatzeko, indargabetze horiek bat egiten dute  
Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura  
Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen  
129. artikuluan erregulazio onari buruzko prin-  
tzipioekin. Hauexek, hain zuzen: segurtasun juridi-  
koa, beharra, proportzionaltasuna. Hitz batean,  
arauen kalitatea areagotzen du, ordenamendu  
juridikotik kentzen baititu zaharkitutako arauak.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Eraen-  
tza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren  
10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artiku-  
luan jasotako baimena erabiliz, Lehendakaritzako,  
Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko  
kontseilariak eta Osasuneko kontseilariak propo-  
saturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta  
hogeita bateko ekainaren hogeita batean eginda-  
ko bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritik,

**DEKRETATZEN DUT:**

**Artikulu bakarra.** Indarririk gabe uztea.

**Bat.** Indarririk gabe uzten da 7/2020 Foru Lege-  
dekretua, uztailaren 22koa, zeinaren bidez ohiz  
kanpoko prebentzio neurri batzuk hartu baitziren  
koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari  
aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio pla-  
naren 3. fasea gainditu ondoren.

Bj. Indarririk gabe uzten da abuztuaren 17ko 8/2020 Foru Lege-dekretua, ohiz kanpoko neurriak onetsi zituena Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren kasu positiboaren igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko. Salbuespenak dira 6. artikulua (Baimenik gabeko alkohol kontsumoa bide publikoan) eta 11. artikulua (Tabakoaren eta parekoen kontsumoa).

Hiru. Indarrean jarraituko dute abuztuaren 17ko 8/2020 Foru Lege-dekretuaren 6. eta 11. artikuluek, harik eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu arte osasun arloko organo eskudunaren adierazpena, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak txosten-proposamena eman ondoren, non adieraziko baita COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak eboluzio ona izan duela eta neurri horiek ez direla beharrezkoak.

**Azken xedapenetako lehena.** Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikulua 2. apartatuan ezarritakoaren arabera.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru dekretu honek 2021eko uztailaren 2an hartuko du indarra.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Nafarroako Gobernuako lehendakaria, María Chivite Navascués

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remírez Apesteguí

---

## **5/2021 Foru Lege-dekretua, ekainaren 2koa, zerga arloko zenbait neurri onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.**

### *OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko ekainaren 17an egindako bileran, baliozkotu zuen 5/2021 Foru Lege-dekretua, ekainaren 2koa, zerga arloko zenbait neurri onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Foru Lege-dekretua 2021eko ekainaren 15eko 138. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2021eko ekainaren

15eko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2021eko ekainaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias